



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

UDAL PLENOA
Bilkura Berezia

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2015/10/13	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00:00 – 19:30	

BILDUTAKOAK:

Lehendakaria: María Ubarretxena Cid (EAJ-PNV)

Zinegotziak: Ibon Arrupe Aldecocea (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Ander Garay Zabaleta (EAJ-PNV)
Amaia Ceciaga Garmendia (EAJ-PNV)
Juan Karlos Garitano Ezkurra (EAJ-PNV)
Amaia Azpiazu Aramburu (EAJ-PNV)
Anuska Ezkurra Zubizarreta (EAJ-PNV)
Eneko Barberena Mondragon (BILDU)
Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)
Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga (BILDU)
Maialen Zabaleta Madinabeitia (BILDU)
Jose Luis Encinas Jose (BILDU)
Itxaro Artola Lizarralde (BILDU)
Oscar Garcia Horrillo (PSE-EE)
Anabel Legaz Canflanca (PSE-EE)
Igor Urizar Murgoitio (Baleike)
Eva Abuin Bideburu (Baleike)
Juan Luis Merino Sanabria (Irabazi Arrasate)

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.
Iñaki Arriaga Uzin, Udaltzainburua

BILDU EZ DIREN UDALKIDEAK: Urki Larrea Ibabe (BILDU)
Victoriano Fuentes Noguera (PSE-EE)

BERTARATZE ETA IRTEERAK: Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

M. UBARRETXENA (Lehendakaria): Arrasaldeon denoi, beno gutxi gorabehera zinegotzi guztiak gaude hemen, eta Plenoari hasiera ematera goaz.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

2015eko irailaren 17ko bilkurako akta, aho batez, onartzen da.

2.- ORDEZKARIA IZENDATZEKO PROPOSAMENA, DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEAN KIROL BATZORDEARI DAGOKIONEAN. (2015SKOR0001)

Udal Plenoak, aho batez, Alkatetzaren ondoko erabakia onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udalbatza berria eratu ondoren, Udaleko Osoko Bilkurak, 2015eko uztailaren 13ko eta irailaren 17ko bilkuretan erabaki zuen udal honetako zinegotzien izendapenak onartzea, Arrasateko Udalaren ordezkari gisa jardun zezaten hainbat erakundetan.

Erabaki hori hartu ondoren, Debagoieneko Mankomunitateak jakinarazi digu asmoa duela beste batzorde informatzaile bat osatzeko, Kirol Batzordea, hain zuzen ere.

Hori kontutan izanik, alkateak haxe proposatzen dio Udaleko Osoko Bilkurari:

LEHENENGO.- Udal honen ordezkari gisa zinegotzi hau izendatzea Debagoieneko Mankomunitatean Kirol batzorde informatzaileerako:

✓ : **Ander Garay Zabaleta**

BIGARREN.- Erabaki hau jakinaraztea Debagoieneko Mankomunitateari eta interesdunari.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

3.- “AGITAX”; PROPOSAMENA TAXI ZERBITZUAREN 2016KO HIRI TARIFEI BURUZ.(2015ZZER0141)

Udal Plenoak, aho batez, Obrak, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

AGITAX” elkarteak (Asociación Guipuzcoana del Taxi/Gipuzkoako Taxisten Elkartea) idatzi aurkeztu du, eta honetan proposatzen da, 2015. urterako onartutako hiri tarifa berberak mantentzea 2016. urterako, auto-taxi zerbitzuan.

Batetik, aurkeztutako agiriak aurkeztu ditu batzordeak eta, bestetik, Udaleko Zerbitzu Teknikoek azaldutakoa; haiek adierazten dute bat datozela elkarte biek aurkeztutako proposamenarekin, zehazki tarifak hauek izango lirateke:

	BANDERA JAISTEA	EGINDAKO KM	ITXARON ORDUA
EGUNEKOA, LANEGUNEAN*	3,5130 €	1,1005 €	21,0175 €
GAUEKOA/JAIEGUNEAN	3,5130 €	1,7553€	33,0393 €

- a) Udalbatzarrak, , 2014ko urriaren 21an egindako bilkuran, 2015 urterako tarifak onartu zituen.
- b) Udalari dagokio hiri tarifen erregimena, Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen 2/2000 Legearen 3.3 eta 17.6 artikuluen arabera, nahiz eta, geroago bidali beharko den espedientea Merkataritzako Lurralde Ordezkaritzara, era berean hark Euskadiko Prezioen Batzordeari bidaltzeko, eta azken horrek tarifak aztertuko ditu eta, hala badagokio, baimendu.
- c) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak, 2005eko irailaren 22an, Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako diputatuaren Foru Agindua argitaratu zuen, 2005eko abuztuaren 23an eman zuena, eta haren bidez, taxi zerbitzua emateko, Debagoieneko Erregimen Bereziko Espazioa eratzea onartu zuen. Eta ezarritako baldintzen artean, besteak beste, tarifen



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

bateratzea agertzen da. Aplikatu beharreko tarifa, zerbitzuaren arabera, berdina izango da osatzen duten udalerrri guztientzat.

- d) Azkenik aurkeztu dituzten agiriak aztertu eta gero, Udaleko Zerbitzu Teknikoek proposatzen dute, lehenengo, 2015ean onartutako tarifak 2016an mantentzeko eskaera onartzea eta, bigarren, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari bidaltzea, batetik, hasitako espedientea eta, bestetik, akordio honi buruzko ziurtagiria, aztertzen ari garen tarifak berraztertzeke espedientearen tramitazioa egiteko.

Lehen azaldutakoa aztertu eta gero, hauxe proposatu du Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordeak:

1.- Auto-taxiaren 2015eko hiri tarifak 2016. urterako mantentzeko proposamena onartzea, tarifa taula honetan zehazten dena:

	BANDERA JAISTEA	EGINDAKO KM	ITXARON ORDUA
EGUNEKOA, LANEGUNEAN*	3,5130 €	1,1005 €	21,0175 €
GAUEKOA/JAIEGUNEAN	3,5130 €	1,7553€	33,0393 €

2.- Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari bidaltzea, batetik, tarifak berraztertzeke hasitako espedientea eta, bestetik, akordio honi buruzko ziurtagiria, aztertzen ari garen tarifak berraztertzeke espedientearen tramitazioa egiteko, 2016 urterako 2015eko tarifa berberak mantenduta.

3.- Akordioaren jakinarazpena bidaltzea Debagoieneko Mankomunitateari eta "AGITAX" elkarteari.

4.- 2014 URTEALDIKO KONTU OROKORREKO ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSATZEA. (2015RBAR0014)

Udal Plenoak, aho batez, Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

Ogasun Batzordeak, 2015eko ekainaren 4an, txosten hau eman zuen:

“2014ko urtealdiko Kontu Orokorrari buruzko txostena.

Aurrekontu gaietan indarrean dagoen araudian xedatutakoa betetzeko, 2014 urtealdiko kontabilitate kontuak aztertu ditu batzordeak, udalarenak nabiz Aukea eta Iturbide Egoitza erakunde autonomoenak; hain zuzen ere, aurrekontuaren likidazioa, kredituak aldatzeko espedienteak, diruzaintzako egoera eta aurrekontutik kanpoko dirukontuen mugimenduak, egoera-balantzea, galdu-irabazien kontua, finantzaketa-aula, ibilgetuari buruzko eranskinak, konpromisoko kredituak, finantza inbertsio iraukorrak eta emandako abalak.

Kontuan izanik dokumentazio borretan ondo dagoela jasota 2014ko urtealdian bizi izandakoa Udalaren eta Aukea eta Iturbide Egoitza erakunde autonomoaren arteko ibilbide ekonomikoan, eta 2014/12/31an behar bezala dagoenez jasota finantza eta ondare egoera, Ogasun Batzordeak aldeko txostena ematen dio Kontu Orokor horri.

Edozelan ere, udalbatzarrak onartu baino lehen, aipatu espedientea jende aurrean jarri behar da, 15 eguneko epean, interesdunek aztertu dezaten eta bidezkoztat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten.”

KONTUAN IZANIK ekainaren 16tik uztailaren 5era arteko aldian, 2014ko Kontu Orokorrari dagokion espedientea jende aurrean egon dela erakusgai, eta ez dela aurkeztu ezelako erreklamazio, alegazio edo bestelakorik legezko epe barruan.

KONTUAN IZANIK 2014ko urtealdiko kontuei buruz “ZUBIZARRETA CONSULTING, S.L.” enpresak egindako auditoriari buruzko txostena, non esaten den 2014ko ekitaldiko Kontu Orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, Arrasateko Udalaren ondarearen eta finantza egoeraren irudi leiala erakusten duela.

Horregatik guztiagatik, Ogasun Batzorde Informatiboak, 2014ko urtealdiko Kontu Orokorra onartzea proposatzen dio Udalbatzari.

5.- 2016. URTERAKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA. (2015RBAR0027)

Idazkariak Ogasun Batzordearen ondoko diktamena irakurtzen du:

Indarrean dagoen legeriaren babesean, Ogasun Batzordeak, Ordenantza Fiskalak aztertu ondoren, ondorengo akordio proposamena egiten dio Udalbatzarrari:

I – Behin-behinekoz onartzea 2016rako ordenantza fiskalak aldatzeko espedientea:

1.- ZERGAK.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

- **Ondasun higiezinaren gaineko zerga (OHZ):**
 - zerga tasa dagoenean mantentzea.
 - etxebizitza erabilera duten ondasunak, ohiko egoitza ez direnean aplikatzen zaien %50eko gainkargua mantentzea. (emendakinaren bidez aldatzen den puntua)
- **Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ):** zerga tasa dagoenean mantentzea.
- **Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga (TMIGZ):** zerga tasa dagoenean mantentzea.
 - a) Zerga kuotaren %75eko hobaria izango dute motor hibridoa (argindarrarekin eta gasolinarekin, argindarrarekin eta dieselarekin edo argindarrarekin eta gasarekin) duten ibilgailuak Etxetik bertatik homologatuta etorri beharko dira.
 - b) Zerga kuotaren %95eko hobaria izango dute lantegitik bertatik homologaturik datozen motor elektrikoko ibilgailuek.
- **Hiri-lurren balioa gehitzearen gaineko zerga (HBGZ):** zerga tasa dagoenean mantentzea.
- **Eraikuntza, obra eta instalazioen gaineko zerga. (EOIZ):** zerga tasa dagoenean mantentzea.

Eraikuntza, obra eta instalazioen gaineko zergako hobarietan, epea mugatzea hobaria eskatzeko (5. artikulua – 3. HOBARIAK), honela geratuko litzateke:

Zerga honetan ematen diren hoberiak eskatzeko, 2. hobaria izan ezik, hau da, babestutako etxebizitzaren birgaitze obrak (Eusko Jaurlaritza) izan ezik, 6 hilabeteko epea izango dute, likidazioa jakinarazten den egunetik kontatzen hasita..

2. TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK.

Tasa eta prezio publikoak, orokorrean, mantentzea, Ura eta Zaborra ere bai.

- EDATEKO URAREN HORNIDURA ETA SANEAMENDU ZERBITZUA

Tasak dagoenetan mantentzea.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

- ITURBIDE EGOITZAN ZERBITZUAK EMATEAREN TASA.

Proposatzen da 2015ean indarrean dagoen testuaren ordeztan onartzea jarraian jasotzen dena: Kontuan izan behar da Iturbide Egoitza dela zentro bat hitzartua Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, eta horren ondorioz, zerbitzuaren erabiltzaileen ekarpen ekonomikoak aldundiak arautzen dituela 15/2015 Foru Dekretuaren bidez. Hortaz, udal ordenantzak arautu behar du ekarpen (tasa) hori jasotzeko prozedura besterik ez.

“Ordenantzaren testu berria:

1. artikulua. Egitate zergagarria.

Egitate zergagarria da zerbitzuak ematea Arrasateko Udaleko erakunde autonomo Iturbide zaharren egoitzan.

2. artikulua. Kontzeptua

Pertsona egoiliarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak dira Arrasateko Iturbide zaharren egoitzan egindako egonaldiak.

3. artikulua. Erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa

Iturbide Egoitzako zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko ekarpen ekonomikoaren zenbatekoa erabakiko du Gipuzkoako Foru Aldundiak kasu bakoitzeko, 15/2015 Foru Dekretuan xedatutako arauen arabera (*Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzeko*), GAO 2015/06/22.

4. artikulua. Kuota ordaintzera behartuak

Behartuta daude aurreko artikulua aplikatuz lortzen diren zenbatekoak ordaintzera, egindako egonaldiengatik edo, hala dagokionean, plazen erreserbagatik, erabiltzaileak berak eta, subsidiarioki, Kode Zibileko 143 eta 144 artikuluek aipatzen dituzten pertsonak.

5. Artikulua. Sortzapena

Ordaindu beharreko kuota zehaztu ondoren, kuota hori zerbitzua eskaintzen den egun bakoitzeko eskatu ahal izango da, sarrera-egunetik hasita, nahiz eta aukera izan kuota hori kobratzeko hilabetea igaro ondoan ere, benetan egindako egonaldiengatik.

6. artikulua. Kudeaketa, likidazioa eta kobraketa

Ordenantza honetan araututako tasen likidazioa eta kobraketa egingo da hilabete natural bakoitzaren amaieran. Ordaintzeko modua izango da Iturbide Egoitzak ezartzen duena.

7. Artikulua. Premiamendu prozedura



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

Ordenantza honetan jasotako tasengatikozorrak premiamenduzko administrazio prozedura bidez eskatuko dira tasaren sortzapen-egunetik bi hilabete igaro ondoren. Epealdi hori amaitzen denean, Udalaren zerga-bilketak tasa hori kobratzeari ekingo dio premiamendu bidez, eta horretarako, zordunen zerrenda eta aurreko paragrafoan xedatutako zirkunstantziak egiaztatzen dituzten agiriak erantsiko dira.”

- ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN TASA

Ordenantzetako K epigrafeko 6.2.3. artikuluan jasotzen den ekarpenen portzentaje taulan eguneratu gabeko datu batzuk izanik, proposatzen da jarraian zehazten den taulak 2015ekoa ordezkatzeara:

Irabaziak/hileko/pertsonako	Erabiltzaileak ordaindu beharrekoa Zerbitzuaren ordutako prezioaren
Hasta el 110% LGS/SMI	1,5 %
111% - 115% LGS/SMI	4 %
116% - 125% LGS/SMI	8 %
126% - 150% LGS/SMI	15 %
151% - 175% LGS/SMI	24 %
176% - 200% LGS/SMI	35 %
201% - 225% LGS/SMI	48 %
226% - 250% LGS/SMI	61 %
251% - 275% LGS/SMI	74 %
276% - 300% LGS/SMI	87 %
Más de 301% LGS/SMI	100 %

- TUTORETZAPEKO ETXEBIZITZA ZERBITZUA.

- Tasa dagoenetan mantentzea

- 4. artikuluko 3. paragrafoa ezabatzea:

“Ondasun bigiezinak egonez gero, legezko oinordekoek deuseztatu ahal izango dute zorra, zor horren zenbatekoa ordainduz. Hala izan ezean, Udalak ondasunari buruz duen eskubidea erabiliko du, zorraren errekonozimenduan oinarriturik, judizioz dagokion terminoetan eta prozeduran.

- 5.1.1. artikuluan, libre izateko dirua 200 €-an finkatzea:



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

5.1.1 Erabiltzaileak bere hileroko pentsioaz gainera ez baldin badauka bestelako diru-sarrera edo ondasunik, kuota hileroko pentsioaren %75 izango da, eta gainerako %25a erabilera libreko dirua izango da. Edozelan ere, erabilera libreko diru hori ez da inoiz 200 € baino gutxiago izango. Ordainsari berezien zati proportzionala hileko pentsioan sartuko da.

- ADINEKOENTZAKO JANTOKI ZERBITZUAREN TASA.

- Tasa dagoenetan mantentzea

- BIDE PUBLIKOKO ZORUA, HEGALDURA ETA LURPEA MODU PRIBATIBOAN ERABILTZEAREN TASA

Atal honetako kudeatzeko arauetan, gehitu egoera berria: (beltzez eta etzana)

d) Kaleko salmenta, barrakak, ikuskizunak, eta abar.					
a) m2-ko, urtea	100%	102,30	76,73	51,15	25,58
b) m2-ko, denboraldia 3 hilera arte	80%	81,84	61,38	40,92	20,46
c) m2-ko, hilabete baino gutxiago	70%	71,61	53,70	35,81	17,90
d) m2-ko, 15 egunetik behera	60%	61,38	46,04	30,69	15,35
e) m2-ko, herriko jaietan (5 egun)					
Irabazteko asmoaz	30%	30,70	23,03	15,35	7,68
Irabazteko asmo barik	10%	10,20	7,65	5,10	2,55
f) m ² -ko egun baterako					
Irabazteko asmoaz	15%	15,35	11,51	7,68	3,84
Irabazteko asmo barik	5%	5,12	3,84	2,56	1,28



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

Jaiegunetan, zehazki, atal hauek aplikatuko dira bide publikoa okupatzeko:

Sanjuanetan “e” atala aplikatuko da.

Santamasetan eta Gabonetan, “c” atala.

Santamas egunean, “f” atala.

San Andresko edo beste auzo bateko jaietan “e” atala.

San Andresko eta Musakolako jaietan, “d” atala.

Maritxu Kajoi egunean, “f” atala.

Inauterietan, “e” atala.

Inauteri martitzenean, “f” atala.

Iñauterietako zapatuan, San Juanetako jaietan 2 egun, Maritxu kajoi egunean, Santamas egunean eta Gabon zahar egunean kamioi-dendatik janariak saltzea d) atala. Baimena egun guztietarako izango da eta ordainketa bakarrekoa, eta gauzatuko da baimena erabiltzen hasi aurretik. Kuota zatiezina izango da.

Bide publikoa hartuz gero lehen azaldutako jaiegunetik kanpo, zergak hortik aparte ordainduko dira, okupazio aldiaren arabera.

Jendaurreko ikuskizunez, erakusketez eta antzekoez bide publikoa erabiltzen denean, 100 m²-ko azaleratik gora, kobratu beharreko gehieneko tasa izango da 400 euro.

- KIROLDEGIKO INSTALAZIOAK ERABILTZEAREN TASA.

1.- ABONUAK:

a) URTEKOAK:

	ARRASATEN ERROLDATUAK	ARRASATEN EZ ERROLDATUAK *
IGERILEKUA		
Banaka: haurrak	80,30 €	96,36 €
Banaka: helduak	134,75 €	161,70 €
Familia	215,15 €	258,18 €
KIROLDEGIA		
Banaka: haurrak	80,30 €	96,36 €
Banaka: helduak	134,75 €	161,70 €
Familia	215,15 €	258,18 €
PLUSA		
Banaka: haurrak	120,60 €	144,72 €
Banaka: helduak	202,20 €	242,64 €
Familia	322,75 €	387,30 €
UDAKO ABONUA		
Banaka: haurrak	40,10 €	48,12 €



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

Banaka: helduak	67,35 €	80,82 €
Familia	107,50 €	129,00 €
BOULDERRA		
Banaka: haur eta helduak	34,00 €	40,80 €
Boulderreko bazkideek, kasu guztietan, txartel elektronikoa erosi behar dute instalaziora sartzeko.		

b) HILEKOAK:

	ARRASATEN ERROLDATUAK		ARRASATEN EZ ERROLDATUAK	
	Hilean	Matrikula (alta berriak)	Hilean	Matrikula (alta berriak)
PLUSA				
Haurra	11,56 €	14,45 €	13,90 €	14,45 €
Heldua	19,38 €	24,20 €	23,25 €	24,20 €
Familia	30,93 €	38,65 €	37,10 €	38,65 €

2.- SARRERAK

IGERILEKURA EDO GUNE LEHORRERA

Haurrak	3,40 €
Helduak	6,00 €

PLUS SARRERA

Haurrak	5,10 €
Helduak	8,55 €

ROKODROMORAKO SARRERA 3,40 €

10 SARRERA KO BONUAK - IGERILEKURA EDO GUNE LEHORRERA

Haurrak	27,35 €
Helduak	54,60 €

10 SARRERA KO BONU PLUSA

Haurrak	40,70 €
Helduak	75,35 €

TALDEAK

Arruntak: 20 pertsona	%50
Bereziak: 10 pertsona	%50

3.- BESTELAKOAK

Txartel magnetikoa/eletronikoa.....	5,10 €
Giltza	2,45 €
Dutxa	3,40 €



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

4.- ALOKAIRUAK

KIROL HELBUETARAKO EZ DIRENEAN

MUSAKOLA eta ITURRIPE kantzak eta UARKAPE pilotalekua (BEZa APARTE)

Egun erdia (6 ordu)	1.157,20 €
Egun osoa (12 ordu)	2.766,50 €
Ordua (gehienez ere 3 ordu)	108,65 €

ITURRIPE KANPOKO KANTXA, FRONTOIAK eta PISTAK (BEZa APARTE)

Egun erdia (6 ordu)	345,80 €
Egun osoa (12 ordu)	691,65 €
Ordua (gehienez ere 3 ordu)	108,65 €

KIROL HELBUETARAKO DIRENEAN

ERRESERBA

MUSAKOLA	Abonatuak		Abonatu ez direnak/ Erakundeak: (eguneko sarreraz gain)
	Argirik gabe	Argiarekin	
Musakola kantxa	5	7	37,75
Antoñako kantxa	5	7	25,15
Frontoiak	1	2	5,10
Tenisa	1	2	5,10
Padela	2	3	5,10
Argia	-	-	3,45
Squasha (45 min)	1	2	5,60
Futbol/Errugbi zelai erdia	8	18	35,55
Futbol/Errugbi zelai osoa	15	25	35,55
* Atletismo pista		35,55	
* Gimnasioa (gelak)		28,60	
* Igerilekua (denboralditik at, baimena behar da)			
Handia		165,30	
Txikia		88,20	
Kale bat		27,55	
ITURRIPE			



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

Kantxa	5	7	37,80
Frontoi handia	1	2	4,90
Frontoi txikia	1	2	3,80
Argia	-	-	2,20
Kanpoko kantxa	3	5	9,90
Tenisa	1	2	3,80
UARKAPE			
Pilotalekua	3	5	15,00
Argia, fase 1	-	-	4,90
Errebotetxea	1	2	6,00
*Boulderra		28,60	

* Soilik erakundeek erreserbatu ahalko dute

1- ERANSKINA – OHARRAK

- 2 urtetik beherako haurrek dohainik.

Haurrak: 1998 eta 2014 bitartean jaiotakoak (biak barne).

Helduak: 1997an edo lehenago jaiotakoak.

Familiakoa: 1998an edo geroago jaiotako seme-alabekin. Seme-alabarik ez duten kasuan, aurkeztu beharko da familia liburua edo izatezko agiria, jasotzen duena bikote direla.

- “Igerilekurako sarrera” modalitateak aukera ematen du igerilekua, sauna eta lurrun bainua erabiltzeko.
- Kolektibo bereziek (ikastetxeak, MU, enpresak, ...) ordainduko dute adostutako hitzarmenean xedatutakoa. Udalaren Kirol Politikaren barruan, Arrasateko ikastetxeek klase orduetan erabilitako gune lehorreko instalazioen tasarekiko %100eko hobaria aplikatuko da alokairu prezioan, eta bere ohiko jarduerari lotuta erreserba egiten dutenean, ez dute ordainduko eguneko sarrerarik.
- Eratutako taldeei (eguneko zentroa, tutoretzapeko etxebizitzak, Aita Menni, etab.) aplikatuko zaie kolektibo bereziei dagokien prezioa.
- Hiru hilabeterako erreserba egiteko beharrezkoa da taldeko kide guztiak abonatuak izatea "kiroldegi abonua" edo "plus abonua" modalitatean. Salbuespen gisa, erreserba duten abonatuekin jokatu ahal izateko, ez-abonatuek kiroldegiko sarrera ordaindu beharko dute.
- Eguneko erreserben alokairua sarreran kobratuko da. Hiruhileko erreserba, aldiz, helbideratze bidez kobratuko da: hiruhileko osoa aurrez kobratuko da eta hiruhilekoan erabiltzen ez den egunetan (24 orduko aurrerapenaz abisatuz gero) itzuli egingo da hiruhilekoaren amaieran. Kirol klubei ez zaie kobratuko entrenamendu eta partidu ofizialetarako erreserba.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

- Ez-abonatuak instalazio baten erreserba puntuala egin ahal izango dute erreserba egunaren bezperan.
- Hobariak aplikatuko zaizkie urte osorako abonatuak soilik.
- Uarkapeko errobotetxoak alokatzeko gutxieneko denbora ordu eta erdikoa izango da. Gainontzeko kasuetan ordu betekoa

b) HOBARIAK

UDALAREN KIROL INSTALAZIOETAKO ABONUEN TASAK ORDAINTZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN ARAUDIA

KONTSIDERAZIO OROKORRAK

Apirilaren 2ko 7/85 Legeak, III. Kapituluak, 25. artikuluan, garatzeko eskumenak ematen dizkie udalei, kirol jarduerak eta kirol programak sustatzeari dagokionez.

14/1998 Legeak, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena, bere printzipio gidarietan aitortzen du pertsona guztiek dutela oinarritzko eskubidea kirola egiteko modu librean eta borondatez; halaber, adierazten du herri administrazioek, haien eskumenean eremuan, eskubide hori egoki erabiltzea bermatuko dutela, hauetan oinarritutako kirol politika batean: ...”kirolaren praktika zabaltzeko programa bereziak onartu eta betearaztea gizarte sektore guztietara, bereziki, gizarte egoera ahulena dutenei”...

Horregatik, Arrasateko Udaleko Kirol Sailak, araudi honen bidez, diru-laguntzak ematea erregulatu nahi du, abonatu guztien tasak ordaintzeko, sailak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzeko eskubidea ematen baitute.

Hiru diru-laguntza mota jasotzen ditu araudiak: lehenengoa, diru-sarrera gutxi duten pertsonak emateko; bestea, ikasten ari diren 19 eta 26 urte bitarteko gazteak kirol praktika sustatzeko dena; eta azkenik kirol txartela diruz laguntzeko den diru-laguntzak ematea lehiaketa ofizialeko udaleko kirol eraikinak erabiltzen dituzten federatu guztiei.

1. ARTIKULUA: XEDEA

Araudi honen xedea da diru-sarrera gutxi eduki eta Arrasaten erroldaturik dauden pertsonak diru-laguntzak ematea eta kiroldegiko sarrera erregulatzea; ikasten ari diren 19 eta 26 urte bitarteko gazteen artean kirol praktika sustatzea; eta azkenik, kirol txartela diruz laguntzea entrenamendu eta lehiaketa ofizialeko Udalaren kirol eraikinak erabiltzen dituzten federatu guztiei.

2. ARTIKULUA: ONURADUNAK

Araudi honen eranskinetako batean eskatutako baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiak.

3. ARTIKULUA: EBALUATU ETA EMATEA



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

Arrasateko Udaleko Kirol Sailak aztertu eta ebaluatuko ditu eskabideak, eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartuko du erabakia. Diru-laguntza proposamena onartzen bada, agertu beharko dira diru-laguntzaren zenbatekoa, zelan ordaindu eta diruz lagundutako pertsonak zer baldintza bete behar duen.

4. ARTIKULUA: ZENBATEKOAREN MUGA

Araudi honek erregulatzen dituen diru-laguntzen zenbatekoak, berez, ezingo du gainditu dagokion tasaren %75 eta, kasu guztietan, izango da urteko abonua egiten duenarentzat soilik.

5. ARTIKULUA: EZ BETETZEA

Araudi honetan edo diru-laguntza emateko erabakian ezartzen den edozein xedapen bete ezean, berraztertu egingo da eta, hala badagokio, emandako kopurua deuseztatu edo gutxitu.

6. ARTIKULUA: DIRU-LAGUNTZAK KONTROLATZEA

Arrasateko Udaleko Kirol Sailak eskubidea izango du egoki irizten dituen egiaztapenak egiteko, datuen fidagarritasuna egiaztatzeko.

7. ARTIKULUA: INTERPRETAZIOA

Araudi honen interpretazioari buruz sortu daitekeen edozein zalantzaren aurrean, Arrasateko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du.

8. ARTIKULUA: AZKEN XEDAPENA

Araudi honek eraginak izango ditu 2016ko diru-laguntzak emateko, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

I. ERANSKINA: ARAUDI ESPEZIFIKOA, ARAUTZEN DUENA DIRU-LAGUNTZAK EMATEA, DIRU-SARRERA TXIKIAK IZAN ETA ARRASATEN ERROLDATURIK DAUDEN PERTSONEI KIROL INSTALAZIOEN TASAK ORDAINTZEKO

1.- XEDEA

Araudi honen xedea da diru-laguntzak ematea kirola egin, diru-sarrera txikiak izan eta Arrasaten erroldaturik dauden pertsonen.

2.- ONURADUNAK

Araudi honek arautzen dituen diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte baldintza hauek betetzen dituzten pertsonen:

- a.- Arrasaten erroldaturik egotea.
- b.- Eranskin honetan jasotzen diren baino diru-sarrera txikiagoak edukitzea.
- c.- Urte osorako abonua ordaindu izana.

3.- ESKAERAK ETA AURKEZTEKO EPEA



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

Aurreko urtetik abonatu direnek eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte abenduaren 15etik urtarrilaren 31ra arteko tartean, helbideraturik dauden ordainagiritan. Epe hori igaro ondoren, ez da onartuko diru-laguntza eskaerarik.

Gerora egiten diren abonuen kasuan, eskaera egin behar da alde zuzenetik edo alta egiteko unean. Inola ere ez da onartuko diru-laguntza eskaerarik, baldin eta ordainagiria ordaindu den egunetik hilabete baino gehiago pasatu bada. Eskaera guztiak BAZen aurkeztu beharko dira.

Kirol saileko tasak ordaintzeko diru-laguntza eskaerak agiri hauekin batera aurkeztu behar dira:

a) Kasu guztietan aurkeztu behar da:

Familia unitatea osatzen duten guztien agiri hauek:

- NAN (AIZ, pasaporte...) agiriaren fotokopia.
- Bizikidetzaren ziurtagiria.
- Langile bizitzaren ziurtagiria, INSSek egina.
- Aurreko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren deklarazioaren kopia bat edo hura aurkezteko derrigorrik ez duela kreditatzen duen ziurtagiria.

b) Horrez gain, diru-sarrerak dituztenek aurkeztu behar dute ere:

Familia unitatearen diru-sarrerak, hau da, etxebizitzan bizi diren 18 urtetik gorako guztien diru-sarrerak. Agiri hauen bidez egiaztatuko dira:

- Soldataren diru-sarreraren ziurtagiria, enpresak egina.
- Langabeziaren prestazioaren edo subsidioaren ziurtagiria, Enplegu Bulegoak egina.
- Erretiro edo bestelako pentsioaren ziurtagiria, INSSek egina.
- Udaletik edo Foru Aldunditik jasotzen ari diren prestazioen ziurtagiria.

Urterako sarrera gordina jaso beharko dute.

c) Diru-sarrerarik ez dutenek, kasu guztietan aurkeztu beharreko agiriez gain, aurkeztuko dute ere:

- Ziurtagiri bat Enplegu Bulegoak egina, zeinak jasoko duen lan eske dabilela eta ez duela jasotzen langabezia prestazio edo subsidiarik.
- Ziurtagiri bat INSSek egina, dioena ez duela jasotzen inolako pentsiorik edo laguntzarik.
- Ziurtagiri bat, dioena ez duela jasotzen inolako laguntzarik Udaletik edo Foru Aldunditik.

Eskaeran edo dagokion agirian akatsen bat izanez gero, hamar eguneko epe bat emango du Udalak akats horiek zuzentzeko, eta epe hori igarotakoan, zuzendu barik, eskabidea artxibatu egingo da. Era berean, datuak faltsutu edo ezkutatu gero, eskatzaileak eskubidea galduko du diru-laguntzak jasotzeko, eta, hala badagokio, geroagokoak ere bai.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

4.- ZER DEN FAMILIA UNITATEA

Arrasateko Udaleko Kirol Saileko hobarien onuradun izateko, soilik diru-sarrerak konputatzeko, familia unitateko kontsiderazioa izango dute Arrasateko etxebizitza berean erroldatuta eta bizikide direnek:

Familia unitateko diru-sarrerak konputatzeko, kontuan hartuko dira hileko diru-sarrera gordinak, zergak kendu barik eta ordainketa bereziak prorratureturik, familia unitatea osatzen duten kide guztiek lortutakoak.

5.- ESKAERA AZTERTZEA

Arrasateko Udaleko Kirol Saileko zerbitzu teknikoek aztertuko dute diru-laguntza eskaera, aurkezten den dokumentazioarekin batera, eta araudi honetan ezarritako baremoa aplikatuko dute, eta dagokion erabakia proposatuko, deklaraturako diru-sarreraren arabera. Kirol Batzordeak diktamena egingo du eskaera bakoitzaren inguruan, eta erabakia hartuko du Tokiko Gobernu Batzarrak.

6.- ZER BAREMO APLIKATU DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO

Baremo hau aplikatu behar da:

1. Pertsona batek osatutako familia unitatea

Familiaren diru-sarrerak LGSaren %150 baino gutxiago badira: %75eko hobaria

Familiaren diru-sarrerak LGSaren %175 baino baino gutxiago badira: %50eko hobaria

Familiaren diru-sarrerak LGSaren %200 baino baino gutxiago badira: %25eko hobaria

2.- 2 edo 3 pertsonak osatutako familia unitatea

Familiaren diru-sarrerak LGSaren %175 baino gutxiago badira: %75eko hobaria

Familiaren diru-sarrerak LGSaren %200 baino gutxiago badira: %50eko hobaria

Familiaren diru-sarrerak LGSaren %225 baino gutxiago badira: %25eko hobaria

3.- 4 edo 5 pertsonak osatutako familia unitatea

Familiaren diru-sarrerak %225 baino gutxiago badira: %75eko hobaria

Familiaren diru-sarrerak %250 baino gutxiago badira: %50eko hobaria

Familiaren diru-sarrerak %275 baino gutxiago badira: %25eko hobaria

4.- 6 pertsona baino gehiagok osatutako familia unitatea

Familiaren diru-sarrerak %250 baino gutxiago badira: %75eko hobaria

Familiaren diru-sarrerak %275 baino gutxiago badira: %50eko hobaria

Familiaren diru-sarrerak %300 baino gutxiago badira: %25eko hobaria

7.- DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEAK

Diru-laguntza ematea onartu eta gero, eskatzaileak ordaindu duen abonua kuotatik dagokiona itzuliko zaio.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

II. ERANSKINA: ARAUDI ESPEZIFIKOA, ERREGULATZEN DUENA DIRU LAUGUNTZAK EMATEA IKASLE DIREN 19 ETA 26 URTE BITARTEKO GAZTEEI KIROL INSTALAZIOEN TASAK ORDAINTZEKO.

1.- XEDEA

Araudi honen xedea da diru-laguntzak ematea ikasten dabiltzan 19 eta 26 urte bitarteko gazteei, Arrasateko Kirol Saileko tasak ordaintzeko.

2.- ONURADUNAK

Baldintza hauek betetzen dituzten gazteek eskatu ahal izango dituzte Araudi honek arautzen dituen diru-laguntzak:

- a.- 19tik 26ra urte edukitzea.
- b.- Ikasten ibiltzea, titulazio ofizialen bat, gutxienez, urtebeteko iraupeneko.
- c.- Arrasaten erroldaturik egotea.

3.- ESKAERAK ETA AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak abenduaren 15etik urtarrilaren 31ra bitartean aurkeztu ahal izango dira, aurreko ekitalditik abonatuak diren eskatzaileen kasuan, ordainagiria helbideraturik badute, eta diru-laguntza jaso nahi dutenean.

Geroago egiten diren abonuetarako, aldeztu aurretik egin behar da eskaera edo alta egiteko unean.

Inola ere ez da onartuko diru-laguntza eskabiderik, ordainagiria ordaindu den egunetik hilabete baino gehiago pasatu bada.

Dokumentazio honekin batera aurkeztu behar dira Arrasateko Udaleko Kirol Saileko tasak ordaintzeko diru-laguntza eskaerak:

- Eskatzailearen NAREN fotokopia.
- Matrikula ordaindu izanaren agiria.

Eskaerak kiroldegian aurkeztuko dira, eta zuzenean tramitatuko dira.

Eskaeran edo dagokion agirian akatsen bat izanez gero, Kirol sailak hamar egun emango du akats horiek zuzentzeko, eta epe hori igarotakoan, zuzendu barik, eskaera artxibatu egingo du. Era berean, datuak faltsutu edo ezkutatu gero, eskatzaileak galduko du diru-laguntzak jasotzeko eskaera, eta, hala badagokio, geroagokoak ere bai.

4.- ESKAERA AZTERTZEA

Arrasateko Kirol Saileko zerbitzu teknikoek aztertuko dute diru-laguntza eskaera, aurkezten den dokumentazioarekin batera, eta baldintzak betetzen dituzten gazteei %25eko diru-laguntza bat emango zaie.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

5.- DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEA

Diru-laguntza ematea onartutakoan, kiroldegiaren abonua ren kuotatik dagokion zatia kenduko da.

III. ERANSKINA: ARAUDI ESPEZIFIKOA, ERREGULATZEN DUENA DIRU LAUGUNTZAK EMATEA KIROL KLUBETAKO KIROLARI FEDERATUEI KIROL INSTALAZIOEN TASAK ORDAINTZEKO, ENTRENAMENDUETAN ETA LEHIAKETA OFIZIALETAN UDALEKO KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIK.

1.- XEDEA.

Araudi honen xedea da diru-laguntzak ematea kirol klubetako kirolari federatuei kirol instalazioen tasak ordaintzeko, entrenamenduetan eta lehiaketa ofizialetan udaleko kirol instalazioak erabiltzeagatik.

2.- ONURADUNAK.

Araudi honetan erregulatzen diren diru-laguntzak eskatzeko, baldintza hauek bete behar dira:

a.- Federatuta egotea.

b.- Arrasateko kirol klub batekoa izatea, erabiltzen dituen Arrasateko kirol instalazioak entrenamenduetan eta lehiaketa ofizialetan.

c.- Kirolariaren klubak abonua izapidetzea.

Ez zaie kobratuko txartela entrenatzaileei, delegatuei eta staf-eko kideei. Pertsona horiek arduratuko dira txartelak erabiltzeaz haien egitekoak betetzeko.

3.- ESKAERAK ETA AURKEZTEKO EPEA

1.- Urtetik urterako denboraldia:

Eskaerak aurkeztu ahal izango dira abuztuaren 1etik irailaren 30era arte. Abonuak geroago egiten badira, eskaera egin behar da alde zurretik edo alta egiteko unean.

2.- Urteko denboraldia:

Eskaerak aurkeztu ahal izango dira abenduaren 1etik urtarrilaren 1era arte. Abonuak geroago egiten badira, eskaera egin behar da alde zurretik edo alta egiteko unean.

Diru-laguntza eskaerak, Arrasateko Udaleko Kirol Sailaren tasak ordaintzeko, kirol klubak izapidetuko ditu:



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

Kluba arduratuko da behar diren datuak ematen kirol sailari, jokalarien altak egiteko: zerrenda baten bidez, jasotzen dituen kirolariaren izen-abizenak, jaioteguna eta helbidea. Halaber klubak, fede emango du zerrenda horretako kirolariek federatu lizentzia dutela. Behin eskuratzen dutenean dagokion federazioaren zerrenda ofiziala, klubak horren kopia aurkeztuko dio kirol sailari.

Dagokion eskaeran akatsen bat edo hutsegiteren bat izanez gero, hamar eguneko epe bat izango du akats edo hutsegite horiek zuzentzeko, eta epe hori igarotzen bada zuzendu barik, eskabidea artxibatu egingo da.

Era berean, datuak faltsutu edo ezkutatu gero, eskatzaileak galduko du diru-laguntzak jasotzeko eskubidea, eta, hala badagokio, geroagokoak ere bai.

4.- ESKAERA AZTERTZEA

Diru-laguntza eskaerak, aurkeztutako agiriekin batera, aztertuko ditu Arrasateko Udaleko Kirol Sailak, eta emango du %90eko diru-laguntza, bakoitzak bere kirola praktikatzeko behar dituen instalazioetako eremuaren tarifarekiko (eremu lehorra edo eremu hezea), baldin eta kirolariek eskaerako baldintzak betetzen badituzte, eta hartzen badute banakako kuota modalitatea.

5.- DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEA

Klubak izapidetutako abonuen prezioa klubari kobratuko zaio, zerrendak behin betikoak direnean.

Parte hartu nahi izanez gero Udalak ematen dituen laguntzen deialdian, kirol klubek jarduera arrunta aurrera eramateko, laguntza horren gaineko deskontu bidez kobratu ahalko zaio, klubak hala eskatzen badu.

Federazioaren lizentziaren indarraldiak bat etorri behar du diru-laguntza jaso duen kiroldegiko abonuen indarraldiarekin.

6.- ORGANO ESKUDUNA.

Diru-laguntzak ematea dagokio Tokiko Gobernu Batzarrari, Arrasateko Udalean, Kirol Sailak proposatuta.

IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK ERAMATEKO ETA IBILGAILUOK ZAINDU ETA IBILGETZEKO ZERBITZUAREN TASA

Alde batetik, ziklomotarrak, autokarabanak eta karabanak sailkatuko dira, bakoitza bere multzoan, legeak markatzen dituen 3.500 kg-ko muga ezarrita, eta orain arte Udalean genuena, 3.000 kg-koa, ordezkatu.

Bestetik, proposatzen da euroak borobiltzea, zentimoak kenduz.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

Honela geratuko litzateke:

A. Ibilgailuak eramateagatik

Bizikletak, motozikletak, trizikloak, moto-gurdiak eta antzeko ezaugarriak dituzten gainerako ibilgailuak, bakoitzeko:	€
1. Zerbitzua egiten joan doanean eta, udal gordailuetara eramateko egin behar diren tramiteak hasita, eramaterik ez dagoenean, gidaria edo titularra dagoelako.	31,00
2. Zerbitzua osorik egiten duenean, araua hautsi duen ibilgailua udal gordailuraino eramanda..	31,00
Turismoak, autokarabanak, karabanak, eta atoiak, 750 Kg arte eta kamioiak eta bestelako ibilgailuak 3.500 Kg arte	€
1. Zerbitzua egiten joan doanean eta, udal gordailuetara eramateko egin behar diren tramiteak hasita, eramaterik ez dagoenean, gidaria edo titularra dagoelako.	46,00
2. Zerbitzua osorik egiten duenean, araua hautsi duen ibilgailua udal gordailuraino eramanda.	92,00
Kamioiak, 3.500 kg-tik gorako tonaz, autobusak, atoiak, 750 kg-tik gorako tonaz, eta erdiatoiak	€
1. Zerbitzua egiten joan doanean eta, udal gordailuetara eramateko egin behar diren tramiteak hasita, eramaterik ez dagoenean, gidaria edo titularra dagoelako, ibilgailu bakoitza garabiaren fakturaren arabera, gutxienez. Ibilgailua Udalaren garabiak eramango balu gutxienerako tarifa ezarriko litzateke.	61,00
2. Zerbitzua osorik egiten duenean, araua hautsi duen ibilgailua udal gordailuraino eramanda, ibilgailu bakoitza garabiaren fakturaren arabera, gutxienez. Ibilgailua Udalaren garabiak eramango balu gutxienerako tarifa ezarriko litzateke.	122,00

B. Eramandako ibilgailuak auto biltegiari utzi eta zaintzeagatik:

Tarifa hau, auto biltegiari utzi eta zaintzeagatik, 3. egunetik aurrera kobratuko da, hirugarren eguna barne

1. Bizikletak, motozikletak, trizikloak, moto-gurdiak eta antzeko ezaugarriak dituzten gainerako ibilgailuak, eguneko edo frakzioko	3,00 €
---	--------



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

2. Turismo automobilak, furgonetak, autokarabanak, karabanak, eta atoiak, 750 Kg arte eta kamioiak eta bestelako ibilgailuak 3.500 Kg arte, eguneko edo frakzioko	9,00 €
3. Kamioiak, 3.500 kg-tik gorako tonaz, autobusak, atoiak, 750 kg-tik gorako tonaz, eta erdiatoiak, eguneko edo frakzioko.	18,00 €

C. Ibilgailuak ibilgetzegatik

1. Edozein tresna mekaniko edo zepo bidez ibilgetzea, A atalean agertzen diren tasen	50%
2. Eguneko eta hirugarren egunetik kontatzen hasita (barne) ibilgetuta jarraitzen duten ibilgailuak, B atalean agertzen diren tasen	50%

D. Ibilgailua eramatea eta gero behin betiko baja ematea Trafikon

1. Bide Publikotik Ibilgailua eramatea, jabeak eskatuta edo ofizioz, gero BEHIN BETIKO BAJA ematea Trafiko Burutzan.	90,00 €
--	---------

OSPAKIZUN ETA JARDUERETAN ONTZIAK MAILEGUZ EMATEAREN PREZIO PUBLIKOA.

Ezarri gutxienezko bat likidazioa ateratzeko.

Proposatzen da gutxienezko hori 10 €-koa izatea ekitaldi eta zergadun bakoitzeko.

Honek ekarriko luke 10 €-tik beherako likidazioak Udalaren kontura izatea.

Tarifak mantentzen dira.

BIDE PUBLIKOKO ZORUAREN, HEGALDURAREN ETA LURPEAREN ERABILERA PRIBATIBOA

Mahaiak eta aulkiak: Tarifa berria proposatzen da lurzorua hartzen duenean aparkaleku lurzorua, baldin eta, erabilera hori baimentzen baldin bada, betiere hirigintza sailetik ezartzen diren baldintzetan. Tarifa berria izango da 1,5 koefizienteaz biderkatutakoa, kale bakoitzari dagokion neurrian.

II .- Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, jende aurrean erakusten dugu Ordenantza Fiskalak aldatzeko espedientea, egoki irizten dituzten erreklamazioak aurkeztu ditzaten interesdunek Idazkaritzako bulegoan, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen duten egunetik hasita 30 egun balioduneko epean.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

III .- Erreklamaziorik aurkeztu ezean behin-behineko akordioen kontra, eta uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16. artikulua 3. atalean ezarritakoaren arabera, behin betiko onartutzat joko dira akordio horiek.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Ikusita testu honen gainean emendakinak aurkeztu direla talde politiko ezberdinen partetik prozedimendua izango da, talde politiko bakoitzak aurkeztuko du bere emendakina eta emendakin hori banan-banan bozkatzeko joango gara eta onartutako emendakinekin bukaeran Amaiak esango digu nola gelditzen dan testua. Orduan, lehengo emendakinak aurkezten hasiko gara eta emendakin bakoitza bozkatzeko beraz zuena da hitza.

A.EZKURRA (EAJ-PNV):

Kaixo. Arratsaldeon guztioi, udal korporazioa, hemen bilduta zaudeten herritarrek EAJ-PNV taldearen emendakina gure lehen eta gaur emendakin bakarra izango litzake ondasun higiezinaren gaineko zerga ohiko egoitza ez diren etxeetan %50eko gainkargua kentzea, ezeztatzea, proposatzen dugu. Hau izango litzake gure emendakina.

Honetarako gure arrazoia gure justifikazioa izango lirateke lehenik eta behin hiru arrazoi azaldu nahi genituzke. Lehenik eta behin orain dela bi hiru urte gaintasa hau ezarri zenean helburua benetan helburua zan etxebizitzak hutsik dauden etxebizitzak horiek merkaturatzea alokairu merkaturatzean liberegon zitezkeen alokairu beharra ikusten zelako etxebizitzak beharra somatzen zelako Arrasaten. Hiru urte hauek pasa dira eta hemen dauzkagu datuak eta helburu hau ez da bete eta ez da ez dela bete baizik eta hemen dauzkagu datuak 2014 urtetik 2015era etxe kopuru hauek liberegon daude etxe kopuru hauek ez dira gutxitu baizik eta igo egin dira, 1026 etxe genituen etxe liberegon 2015ean 1063 etxe ditugu, hau da, uste dugu udal honek ez daukala diru biltze hutsaren helburua ez da gurea guk uste dugu guztiz ados gaude alokairu merkaturatze behar dugula baina argi ikusten da datu hauekin helburu hori behintzat gaintasa honekin ez dela bete, gaintasa honek egin duena da bigarren etxe bat zeukaten pertsonak zigortu egin dira eta udalak momentu horretan edo helburu hori ez da lortu.

Bukatzeko bai esan nahiko genuke gure EAJ-PNV argi eta garbi ikusten dugu alokairu merkaturatze hori sustatu behar bada eta benetan ados gaude herri honetan jende asko egon daitekeela non etxebizitzak duin baten eskubidea danok daukagula danok dutela baina ikusten dugu honetarako beste ekintza batzuk aztertu eta martxan jarri beharko liratekeela baina berriz diot gaintasa honek ez digu jarritako helburua lortu. Besterik ez. Mila esker.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Eskerrik asko, Anuska. Orduan emendakin hau bozkatzera pasatuko gara.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

J.L MERINO (IRABAZI):

Yo quisiera decirle algo a esta enmienda. Esta enmienda nosotros vamos a votar en contra, presentamos esa enmienda y presentamos que se mantenga este %50 a la vivienda vacía no con animo de recaudar sino de que si se ponga la vivienda al servicio de la ciudadanía de los que no tienen vivienda pensamos que el Gobierno Vasco se quiere cargar el programa Bizigune, esta es la razón por la que estáis presentando todos los equipos del PNV de toda Gipuzkoa y de toda Euskadi la eliminación de este %50 en el recargo del IBI. A estas viviendas ese es el objetivo cargarse ese programa, otro recorte más, y por lo tanto nosotros pensamos que lo tenemos que mantener y de hecho en la comisión de hacienda votamos salio mantenerlo. Nosotros no estamos de acuerdo.

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Arratsaldeon denoi. Gu be bai Juan Luisek aipatu dauen moduan IBIaren %50eko errenergua mantentzean alde gaz. Alde batetik, eta nolabait atal ideologikoa Oskarrek aurreko plenoan esandako fragmento bat irakurriko dut etxebizitza legearen inguruan eta da ; “esta ley dirigirá especialmente a quienes necesiten una vivienda digna y no tengan recursos para pagarla y a quienes específicamente no pueden afrontar pagos comprometidos y van a ser desahuciados incluye medidas tales como el reconocimiento del derecho subjetivo a la vivienda, las expropiación temporal del uso de la vivienda de familias amenazadas de desahucio en dos años a partir de su entrada en vigor, efectuando las destinadas en rehabilitación, %100 de los recursos en materia de viviendas se destinaría a políticas de viviendas en alquiler. Se define lo que es una vivienda deshabitada, se establece un canon para el control y seguimiento de las viviendas deshabitadas, el alquiler forzoso de las viviendas declaradas inhabitadas...” etab.

Hau da, aurreko pleno baten STOP KALERATZEAKo kideak egon zirenean alegato bat egin zan etxebizitza eskubidean alde eta guk parlamentuan egin genuen hemen ere bat egiten dugu Oskarrek aipatutako puntu honekin gainera ez da gu bakarrik aurreko legislaturan gipuzkoako 52 herrik onartu dute IBIaren errenergua portzentai ezberdinetan eta bai EAJ, bai PSOE baita BILDUren udalerrriak izan dira, batez ere Bildurenak baina denetik egonda panorama horretan.

Guk uste dugu ordenantza fiskalak bi aspektu nagusiki nabarmendu behar dutela desoreka sozialei aurre egitea eta gizarte justuago bat lortzea eta bestetik nolabait politika aurrekoien plasmazioa izatea ez. Guk egiten dugun galdera da zergatik Eibarren bai, Hondarribin bai, eta Arrasaten ez eta zergatik bai guk ere baditugu Anuska datu horiek 2013tik honako bilakaera ez zaigu iruditzen rigurosoa 2015ta konparatzea 201uarekin urtea amaitu ez dan heinean, badakigu irailan hemen ikasleak mugimendua suposatzen dutela eta generatzen dutela etxebizitzan merkatuan eta era berean iruditzen zaigu epe motza horrelako neurri baten benetako fondoa ikusteko. Orduan, guk azken finean nahi duguna da Gelman gertatutakoa ez errepikatzea, ez egitea etxe hutsak alfer lanez, nahi dugu hutsik dauden etxebizitzak merkatura ateratzea eta gure ustez hau zan nolabaiteko inzentibo bat ez dagoena eginda afan rekaudatoriotik baizik eta eskubide baten gauzapenetik. Orduan gu ere aurka gaude.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

I.URIZAR (BALEIKE):

Guk be esatea kontra gazela emendakin gainean Enekok esan dauen bezala bi urte erdiko ez da nahiko esateko ez dauela funtzionatu eta in biko geunkena da ba ordenantza hau hobetzeko lan egin ez kendu eta beste gauza batzuetan pentsatu. Emendakin honek uste dut interes pribatuak laguntza daukala interes eta interes publikoen gainetik gainera eta guk uste dugu udal arduratsu ez dauela ildo hortan lan egin behar. Jabetza aloikaruaren gainetik sustatzea erabaki larria iruditzen zaigu.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Besteren batek hitza nahi du? Bueno ba niri bai gustatuko litzaidake gauza bat esatea honen gainean eta ni nahi dut esatea gu etxebizitza eskubidearen alde noski gaudela, gu etxebizitzaren eskubidearen alde gaude baina laguntza hau ipiniz zenean, zigor hau ipini zenean, ze zigor bat da, guk datuak analizatu ditugu eta ikusi duguna da benetan Arrasaten zigor honi esker etxebizitza gehiago ez direla merkaturatu eta etxebizitza hauek ez direla alokairuan ipini. Aldiz, zer da etxebizitza huts bat?

Orain dela gutxi ikusi dugu Zarautzeko kasuan, non epaile batek esan duen etxebizitza bat ez dela hutsa, etxebizitza hori urtean 20 egunetan erabiltzen baldin bada, beraz, etxebizitza hutsen kontzeptua ere oraindik ba nahiko errenka dago. Arrasaten tasa hau edo zigor hau mahai gainen ipini zenean kontutan edo aintzat hartzen den arau edo baldintza bakarra da etxean inor empadronatuta ez egotea, hombre ba hori esateko etxe hutsa zer dan eta zer ez dan guk ikusten dugu ba errenka dagoela ez dagoela oso ondo zehaztuta zer den benetan etxe huts bat edo ez eta hor ikusten dira datuak eta ikusi da horrela kalifikatutako etxe hutsak empadronaturik gabeko etxeak ba azkenean ez direla merkaturatu eta ez direla alokairuan ipini.

Hortan guk hemen ikusten ditugu bi bide daudela da zigorraren bidea da bide bat edo ikuspegi bat eta beste bide bat da estimulatzearen bidea. Bueno ba gure aldeak behintzat ez du ikusten zigorraren bidea eta bai ikusten dugu alokairuan sustatu baldin behar bada sentsibilizatzearen edo estimulatzearen bidea erabili behar dela. Orduan iruditzen zaigu honek datuak mahai gainean jarrita ez duela helburua bete ze etxeak ez dira merkaturatu eta ez dira alokairuan ipini eta horrek ez du esan nahi inondik inola ere ez gu ez gaudenik etxebizitza eskubidearen alde.

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Beste barik joko semantiko amaigabe baten sartu geinke zigorra eta ez zigorraren artean ez? Ze hau zigorra bada esaterako aparkalekuak terraza moduan ibili nahi dutenei 1.5 tasa jartzea gehiago bueno hori zigorra da edo ez da zigorra ez? Hau da, guk hemen datuak eskuan ikusten duguna da eta adibidez rekaudazioko kopuru garbiak ikusita %10eko hobekuntza bat suposatu dauela 2013tik 2015 urtea amaitu barik eta gauza diferente dala dauen tasa bati hobekuntzak planteatzea eta zuek planteatzen duzuen moduan kentzea. Hemen kentzea planteatzen da eta gu noski horren aurka gaz, adierazi dugu, ez dugu nahi errepikatzea eta argudioak dira mahai gainean daz.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Bozketara pasatuko gara.

Bertaratutakoak	19	
Aldeko botuak:	10	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (2)
Aurkako botuak:	9	EH BILDU (6), BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Abstentzioak:	0	

ONARTUA

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Hurrengo emendakinak aurkezten eta bozkatzen jarraituko dugu, beraz zuena da hitza.

J.L.MERINO (IRABAZI):

En relación al IBI teníamos habíamos planteado otra enmienda que la paso a leer.

En los últimos años los bancos que han obtenido importantes inyecciones de dinero público se están convirtiendo en importantes inmobiliarias que además condicionan la concesión de los préstamos hipotecarios a la compra de una de sus viviendas.

Esas viviendas permanecen inutilizadas sin prestar ningún servicio a la comunidad a la espera de que el mercado inmobiliario se recupere y puedan vuelvan al negocio del ladrillo. Creemos que en este caso se les debe aplicar el IBI el máximo permitido por la Norma Foral que es el %150.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Norbaitek honen gainean zerbait esatekorik

Bertaratutakoak	19	
Aldeko botuak:	3	BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Aurkako botuak:	10	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (2)
Abstentzioak:	6	EH BILDU (6),

Beraz , ez da onartzen.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Hurrengo emendakina aurkeztera pasatuko gara.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

I.URIZAR (BALEIKE):

Guk proposatzen gau impuesto sobre actividades económicas proponemos modificar el anexo 1, incrementando el coeficiente municipal hasta el 2.2. Justificamos esta propuesta entendiendo que las grandes empresas están dejando atrás la secesión económica actual y que por tanto su margen de beneficio permite que esta recuperación pueda revertirse en la distribución de la riqueza y ayudar a la recuperación económica del resto de la población.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Norbaitek nahi du hitza?

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Gu honen inguruan egon gare ikusten aldundiak daukan konparatibak herrien arteko tasari dagokioenean zentzu hortan uste dugu orain arte dauen tipoa altua dela kasi mugan dagoela eta zentzu hortan ez dugu ikusten ointxe bertan ikerketa sakonik edo benetako planteamendu fondokorik horren aldaketa justifikatzen dauena.

Uste dugu dauenetan aproposa dela eta egongo balitz etorkizun baterako planteamendu honi lotutako bestelako lanketa bestelako datuak mahai gainean sakona den zerbait guk prest egongo ginen aztertzeko baina momentuz ez dugu ikusten.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Bertaratutakoak	19	
Aldeko botuak:	3	BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Aurkako botuak:	16	EAJ-PNV (8), EH BILDU (6), eta PSE-EE (2)
Abstentzioak:		

Beraz ez da onartzen.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Hurrengo emendakina aurkeztera pasatuko gara.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

J.L MERINO (IRABAZI):

Es en relación a la ordenanza reguladora sobre los impuestos sobre las construcciones, instalaciones y obras. La justificación es con el fin de ayudar a reactivar el empleo en los distintos gremios relacionados con la reformas en general y animar a las familias que tienen que realizar reformas para adecuar sus viviendas a las cambiantes normativas eficiencia energética etc. Proponemos el siguiente tipo de gravamen para esta supuesto: el 5% con carácter general y bajar al %3 en el caso de restauración, rehabilitación y reparación de inmuebles de uso residencial que constituyan la vivienda habitual.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Honen gainean norbaitek hitza nahi du.

Bozketara pasatuko gara.

Bertaratutakoak	19	
Aldeko botuak:	1	IRABAZI (1)
Aurkako botuak:	10	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (2)
Abstentzioak:	8	EH BILDU (6), BALEIKE (2)

Beraz ez da onartzen.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Hurrengo emendakina aurkeztera pasatuko gara. Zeinek nahi du hitza?

I. URIZAR (BALEIKE):

Tutelatutako etxebizitzan gainean guk proposatzen dugu %1eko jaitsiera izatea ze ulertzen dugu aurrekontua aztertu ondoren badagoela lekua eta erabiltzaileak kasu askotan oso egoera zailean egoten dien, uste dugu aukera bat dela pixkat den arren laguntza emateko.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Honen gainean norbaitek hitza nahi du.

Bertaratutakoak	19	
Aldeko botuak:	3	BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

Aurkako botuak:	10	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (2)
Abstentzioak:	6	EH BILDU (6)

Beraz, ez da onartzen.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Oraindik emendakin gehiago dauzkagu zuena da hitza.

I.URIZAR (BALEIKE):

Hau da, pertsona nagusientzako jantokiari buruz hemen ere %1eko jaitsiera proposatzen dugu arrazoi berdintsuekin ze IPCa bajatu egin da eta guk uste dugu handixa ez da aldaketa baina edozein laguntza mota aurrekontua ikusita ba posible danez aurrera eramatea proposatzen dugu.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Honen gainean hitza, Ander.

A.GARAY (EAJ-PNV):

Honekin erantzungo dotzut honi eta aurreko emendakinari bueno EAJan planteamendua, gobernu honen planteamendua da igoera zero baina jaitsiera baita. Ulertzen dugu beste arlo guztietan mantendu diela prezioak, orduan, badakigu ongizatea zuek eramaten duzuela baina ulertzen dugu planteamendu berdina egin behar dela sail guztietan eta kasu hontan beste sail bat bezala ulertzen dugu jaitsiera ez dela onartzeko gainera zuek eskatzen duzue %1eko jaitsiera gipuzkoako KPIa -0.2 izanda ez da -1ekoa izan, orduan guk ulertzen dugu ez dela ontzat ematen.

I.URIZAR (BALEIKE):

Ez, gauza da nik uste dut gure lana ez dela beti izan behar oso garrantzitsua iruditzen zait aurrekontua ziurtasunez eramatea etab. Baina uste dut herritarrak laguntzeko aukera dauenean hartu egin behar dugula, ez dakit malgutasun pixka bat eduki behar dugula pertsonak eta bihotz pixkat batez gobernatzeko.

J.L.MERINO (IRABAZI):

Respecto a esto yo me ha indignado mucho la posición de este equipo de gobierno con este tema. Es el %1 sabemos que no es muy significativo esa bajada ¿no? Pero esta era un dictamen que venía desde la comisión de hacienda aprobada por unanimidad y lo que se pretende aquí es pasar rodillo a estas dos, pasar rodillo de facto. Entonces me parece que a una comisión que tiene el poder, es



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

informativa, el poder de dictaminar, dictaminar esa bajada en un %1 por unanimidad con todos los grupos presentes y luego venir a este pleno y votar en contra. Me parece un poquito, me ha indignado.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Nik erantzun bat ematea gustatuko litzaidake, egia da gizarte zerbitzuetako komisioan oneritzia eduki zuela proposamen honek baina egia da baita ere proposamen honen oneritzia izan zela udaletxe guztiko kontuak kontuan izan gabe. Badakit lan asko egin duzuela eta benetan eskertzekoa da oposizioko taldeak proposamen asko ekarri dituzuelako ordenantza fiskaleko komisioan lantzeko guk horietako batzuk onartu genituen, beste batzuk ez, onartutako bat adibidez izan da igoera zero izatea baita ere ura eta zaborraren tasari dagokionez ze gure lehenengo planteamendua gobernu lokal bezala ez zen ura eta zaborra eta tasa berdin mantentzea ze adibidez ura guri ur kontsorzioak % 2 igoko digu kostua eta zaborrak ere mankomunitatetik oraindik zain gaude baina pentsatzen dugu ere igo egingo dela, baina bueno iruditu zitzaigun zuen emendakinak onartzeko modukoa zela eta orduan udaletxeak erabaki zuen igoera zero izatea. Orduan kontuan izanda hartu behar kontutan baita ere guri urak %2 igotzen baldin badigu eta onartu baldin bada komisio horretan ez igotzea zuen emendakin bat onartuz ba azkenean udala bat da, udala ez da sailka independentea bere osotasunean koherentzia bat eduki behar du eta ba igoera zero planteatzen baldin bada, igoera zero da sail guztietan. Norbaitek gehiago hitza nahi du.

E. BARBERENA (EH-BILDU):

Gure kasuan nolabait abstenitu gare nahiz eta momentuan ongizateko batzordean be ikusten genuen irizpide igualakin nolabait udaletxe tasatan koherentzia bat eramatearren nolabait ikusi dugu sail guztietan dazenetan guztiak tasak ez? Guretzako badago hemen beste aspektu bat inportantea dena da, adibidez, bertan agertzen den tutoretzapeko etxebizitza zerbitzuan, adibidez, libre izateko dirua 200 €tan finkatzea ez? Dinok holako aspektua die guretzako inportanteak eta bueno zentzu hortan ez dugu kontra egingo baina ezta ez dugu babestuko.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Orduan emendakina bozkatzera pasatuko gara.

Bertaratutakoak	19	
Aldeko botuak:	3	BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Aurkako botuak:	10	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (2)
Abstentzioak:	6	EH BILDU (6)

Ez da onartzen.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

M. UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Emendakin gehiago aurkeztu nahi dituzue.

I.URIZAR (BALEIKE):

Berriro ere erderaz hau luzetxoa delako “enmienda de edición a la ordenanza fiscal reguladora de tasa sobre servicios de recogida de residuos sólidos urbanos proponemos la inclusión de un punto en las normas de gestión.

Esto es una tabla donde se reparte en relación a la renta un porcentaje que seria la bonificación y para poder disfrutar de la bonificación el sujeto pasivo deberá certificar la situación de la unidad familiar con una fotocopia compulsada del IRPF.

Justificamos esta propuesta entendiendo que asegurar los servicios básicos a las personas que menos tienen debe de ser una prioridad para todo el ayuntamiento. Siendo cierto que varias de las tasas como es el caso son cubiertas por las ayudas de emergencia social consideramos que la modificación propuesta descargaría el coste presupuestario que la tasa tiene en las AES, pudiendo incrementar esta ayuda económica y destinarla a funciones de integración económica y social. De esta manera los incrementos venideros de la tasa serán redistribuidos en la función de la renta, consiguiendo un sistema impositivo mas equilibrado y justo socialmente.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Norbaitek hitza nahi du.

E. BARBERENA (EH-BILDU):

Guk kasu honetan uste dugu zaborren kasuan proposatzen den taula hori eta uste dugu badauzela beste dirulaguntza familiei laguntzeko AESak edota bueno kontsorzioak ematen dituen beste dirulaguntza batzuk eta zentzu horretan ez dugu horren beharrik ikusten.

J.L MERINO (IRABAZI):

Nosotros también no lo vamos a apoyar esta propuesta de Baleike pensamos que y ase aprobó la subida cero en la tasa de basuras. Hay otros medios como ha dicho Eneko para paliar esta situación de las familias mas necesitadas a través de las AES por lo tanto, no lo vemos sentido, vamos a votar en contra.

I.URIZAR (BALEIKE):

AESak hortarako bideratzen direla esaten duzue ez? Guk ez dugu konpatibilitate arazorik ikusten arlo hortan hobaria ezarriz dirulaguntza honen portzentai bat murriztu ahal izango genukelako beste behar batzuetara bideratzeko AESen barnean eta be bai esatea Bilduren ezezkoa kostatzen zaigula



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

ulertzea pixkat, hau berau Bilbon proposatutakoa delako, agian zaborraren gaia gutxiago politizatu beharko genuke eta koherenteagoak ingurumena zaintzeko orduan.

E. BARBERENA (EH-BILDU):

Nik uste dut zu ari zarela kasu hontan ingurumena aspektua sartzen kasu hontan ez da hori eztabaida nahi baduzu hasi geinke baina uste dut publikoarekiko errespetuz ez gara sartuko. Gu mantentzen dugu nolabait badazela bestelako laguntza batzuk hori dala indartu beharreko bidea eta guk zaborrakin bai ikusten duguna da eta horregatik esaten genuen zabor tasa ez igotzea saritu behar zela Arrasatearrek egindako ahalegina azkeneko hilabeteetan hondakinak sailkatzen. Horregatik uste dugu gure postura koherentea dela eta hoixe.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Bozketara pasatuko gara.

Bertaratutakoak	19	
Aldeko botuak:	2	BALEIKE (2)
Aurkako botuak:	17	EAJ-PNV (8), EH BILDU (6), PSE-EE (2) eta IRABAZI (1)
Abstentzioak:	0	

Ez da onartzen.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Emendakin gehiago aurkezteko daukazue?

I.URIZAR (BALEIKE):

Enmienda a la edición a la ordenanza fiscal reguladora de la tasa sobre la utilización privativa o aprovechamiento especial del suelo vuelo y subsuelo de la vía publica. Proponemos la inclusión de un punto “en el punto f aprovechamiento del suelo publico por entidades bancarias cajeros en vía publica”

Los cajeros instalados por entidades de deposito u otras entidades financieras siempre que el servicios sea prestado al usuario en la vía publica se aplicara por metro lineal una tasa de 60 € / mes.

Justificamos esta propuesta con la búsqueda de un mayor retorno social vía recaudacion fiscal de la actividad de las entidades financieras consideramos como ocurre en varios municipios se les debe de



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

cobrar a estas entidades que aprovechan la vía pública para un uso privado y por tanto sacan rédito económico del mismo tanto como otros pequeños comercios, venta ambulante aquellos que usan veladores etc. Contando estos últimos con muchos menos recursos y beneficios económicos.

A.EZKURRA (EAJ-PNV):

Ez dakit emendakin gehiago egongo diren baina bueno lehenik eta behin berretsi Alkateak esaten zuena ez? Azkenean EAJ-PNVk orokorrean emendakin guztien honen aurrean zerga eta tasen inguruan gure nahia edo helburua izan dela ez igoerarik zero igoera, ez igoerarik eta ez jaitsierarik zero igoera egotea eta kasu honetan, batez ere bukatzeko, guk ulertzen dugu herritarren zerbitzurako daudela kajero publiko hauek ez dugu uste bankuak beraien diru sari ordain gehitze bat danik. Uste dugu jendearen zerbitzurako ekintza bat danik. Besterik ez.

J.L MERINO (IRABAZI):

Nosotros también, era una enmienda prácticamente igual pero lo voy a justificar de otra manera. El Tribunal Supremo en sentencia del 11 de febrero de 2009 avala que los Ayuntamientos cobren a las entidades financieras una tasa por los cajeros automáticos que se sitúen en la vía pública dado que el alto tribunal considero que constituyen auténticas oficinas de urgencia de las financieras que ofrece servicios de forma continua y obtienen el consiguiente provecho económico. Por lo tanto, no lo decimos no es un capricho de enmienda sino que también lo avala un tribunal. Por ello, nosotros tenemos una propuesta de separar con calles según en que calles en cuatro categorías de calle. Pero bueno estamos de acuerdo que sea una tarifa única como proponía Baleike ¿no? Vamos a votar a favor.

E,BARBERENA (EH-BILDU):

Guk ere bat egiten dugu bizi dugun krisi ekonomikoan erdigunean bankuak ipintzearekin uste dugu erantzukizun handia daukela gaur egungo egoeran. Era berean bankaren inguruan dauen planteamendu honi ikusten dotzat alde onak eta baina baita puntu sinboliko bat ez? Puntu sinboliko hori da benetan zenbat diru rekaudauko dan. Benetan bankuetan eragin hori bilatzen danean, ez dakit gutxi gorabehera ze estimazio dauen baina bueno planteatzen den kopurua nahiko txiki ziren eta orokorrean Arrasaten bost bat kajero edo egongo dira gutxi gorabehera orduan bueno gure planteamendua da, gu abstenitu egingo gara nahiago dugulako bankuen inguruan bestelako lanketa batzuk egitea baita banku publikoen inguruko eztabaida bat, baita aurrezki kutxa publikoen inguruko eztabaida bat. Talde lana bultzatzea gureko geunke hainbaten pleno hontarako nahi eta azkeneko orduan ibili garen ez dagoela aukerarik baina bueno hurrengo egun baterako honen inguruko bestelako planteamendu batzuk egoten badira sinbolismotik haratago guk babestuko geunke.

I.URIZAR (BALEIKE):

Sinbolismoaz eta hitz egiten dugu etab, adibidez tabernariei, kioskerua edo kalean saltzen dauenei horrei bai kobratzen jakielara eta ez dakit horrek partekatzen horrek agrabio garbi bat ikusten dut eta



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

bai ona izango litzake beste era batera elkarlan egitea bankuengana haber nola kobratu leiken, nola ateratzen dituzten etekinak baina bueno nonbaitetik hasi behar da eta behintzat mezu bat bidali behar jakie nire ustetan.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Nire gustatuko litzaidake gauza bat esatea eta da batez be argitzea jendeak ez baldin badaki behintzat bueno kajero automatikoen gaineko zerga hori edo tasa hori ipintzearen harira bankuak kajeroa bere esparruaren barruan baldin badauka eta Arrasaten badaude horrelako bankuak banku horiei ezin zaie tasarik kobratu, aldiz legeak bai lagatzen du kobratzea kanpoan kajeroa daukien bankuak ez eremuaren barruan baldin badaude baina kanpoan baldin badaude bai, bueno guk hartu dugun ikuspuntua ez da bankuak direlako edo zein dagoen atzean baizik eta herritarrei ematen zaien zerbitzua pentsatzen dugu herritarrentzat eroso dela ba dirua atera ahal izatea kaletik bertatik hori esanda ba guk emendakin honen gainean ezezkoa ematearen arrazoi nagusia herritarren komodidadea. Orduan bozketara pasatuko gara.

Bertaratutakoak	19	
Aldeko botuak:	3	BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Aurkako botuak:	10	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (2)
Abstentzioak:	6	EH BILDU (6)

Beraz, ez da onartzen.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Emendakin gehiago baldin badaude? Ez daude orduan Amaia nola gelditu zaigu

A.GORROTXATEGI (Idazkaria):

Onartutako emendakin bakarra egonda eta onartutako emendakina izan da EAJk aurkeztutako emendakina etxebizitza erabilera duten ondasunak ohiko egoitza ez direnean aplikatzen zaien %50eko gailkargua kentzeari dagokiona. Orduan, jarraian pasatuko gara testua osorik bozkatzera orduan izango litzateke hasieran irakurri dugun testua komisiotik atera dan testua emendakin hori puntu hori aldatuta, hau da, etxebizitza erabilera duten ondasunak ohiko egoitza ez direnean aplikatzen zaien % 50eko gailkargua kentzea izango litzateke 2016ko ordenantza fiskaletako aldaketetako bat.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Bozketara pasatuko gara.

BOZKETA:



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

Bertaratutakoak	19	
Aldeko botuak:	10	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (2)
Aurkako botuak:	9	EH BILDU (6), BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Abstentzioak:	0	

Beraz, onartua gelditzen da Ogasun Batzordeak planteatutako testua, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako eta onartua izan den emendakinak aldaturik.

6.-UDAL ORDEZKARI POLITIKOEN HERRIKO ONDARE HISTORIKOAN EGINDAKO PINTADAK GAITZETSI DITUZTE. (2015SMOZ0020)

Udal Plenoak Udal Korporazioak emandako ondoko Adierazpen Instituzionala ezagutzen du:

- Udal korporazioak espazio publikoak errespetatu daitezkeen eskatu du, pintaden garbiketa lanek gastu izugarria eragiten dutelako eta gure herria ondatzen delako.

Arrasateko udal korporazioa osatzen duten alderdi eta ordezkari politiko guztiek, bi astebukaera jarraietan herriko ondare zein eremu historikoetan gauzatutako pintadak gaitzetsi dituzte.

Jakinarazi dutenez, Arrasateko hainbat eta hainbat eraikin eta ondarean egindako azken pintaden garbiketa lanek izan duten kosteaz aparte, herriko ondarea eta kultura diren eraikinak ondatzen dituzte horrelako akzioek.

Era berean, Arrasateko Udalak, panel digitalak jartzeko asmoa dauka, herriko puntu ezberdinetan, herritarren adierazpenak bertan iragarri daitezkeen eta bestetik, batzorde ezberdinetan (euskara, gazteria, kultura etab.) adierazpenak egiteko aukeren inguruan eztabaida zabalduko du, adierazpen askatasuna sustatzeko, beti ere espazio publikoak errespetatuz.

Hori dela eta, udal ordezkari guztiek bat egin dute herritarrei espazio publikoak errespetatu ditzaten eskatzeko eta gogorarazi dute, guztioi dagokigula gure ondarea zaintzea eta guztion arduraren dela gure herria txukun eta garbi mantentzea, Arrasate atseginago eta garbiago baten alde.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Honen inguruan norbaitek hitza nahi du.

A.EZKURRA (EAJ-PNV):

Mila esker. Orain idazkariak Amaiak irakurri duen bezala pixkat bat gure adierazpen instituzional hau gustatuko litzaiguke aurreko plenoan atera genuen aho bateko adierazpen instituzional bidetik joan zedin joan dadila bueno azkenengo aste bukaeretan azken asteetan izan ditugu herrian 300 bat pintaketa,



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

660 m², 10.000 € pasatxo garbiketetan herritar guztaik ordaindu behar izan duten errekurtsuak bideratu dira garbiketara.

Batez ere, uste dugu herritarrak merezi dutela eta nahi dutela eta nahi dugula Arrasate garbi bat, nahi dugu ondare zaindu bat, nahi dugu herri bat pintaketari gabe. Agian, norbaitek pentsa lezake pintaketa hauek adierazpen askatsuna izan daitezkeela, horregatik adierazpenean jartzen genuen bezala gu ez gaude adierazpen askatasunaren aurka, ez da gutxiagorik ere baina uste dugu adierazpen askatasun horiek beste era batetara egin daitezkeela, besteen nolabait egin daitezkeela eta orduan danon laguntza eskatzen dugu, goazen pentsatzen nola egin dezakegun gauzak, ez dakit euskarria jarriz, panelak, batzorde ezberdinetan, lantaldeak bideratu daitezke non adierazpen askatasun hauek nondik nora bideratu ditzazkegun. Horretan guztion partehartzea eskatzen det, herritarrenak bai beste talde politikoenak baizik eta uste dugu herritarrak nahi duela ondare publiko garbi bat, eraikin zainduak eta batez ere errekurtsuak gure errekurtsu publikoak joan daitezen benetan beharrezkoak diren gauzetara eta ez ditzagun errekurtsuak gastatu horrelako gauzetan besterik ez, mila esker.

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Badaezpada argi utziko dugu hasieratik gu ondarean alde gaz, garbitasunaren alde gaz eta dirua ondo erabiltzearen alde gaz, baina gure gustorako gaiak rekorrido bihurria eta bizkorregia eduki dau ez? Hau da, kronologia apur bat eginaz gai irten zen obra eta zerbitzuetako batzorde baten gure taldeko kide batek galdetu zuenean gabonetako argiei buruz ez? Bertan ze gastu egongo zan eta bertan gai zerrendatik kanpo erantzun zitzaion nola pintadak borrarzen dirua gastatu zan etab.

Bertan egin zen galdera horrek ze koste izan zuen eta erantzuna jaso genuen prentsan hori ere ez da prozedura gustokoa guretzat modu suabe abten esatearren ez? Orduan, gure gustorako gaia dator plenora nahikoa landu gabe, ñabardura asko dauzelako gai hontan ez? Alde batetik, aipatu da adierazpen askatasuna, ondare historikoa nolabait galdera ez? Zerk bultzatzen ditu kolektibo ezberdinak pintada bat egitera? Zer irakurketa egiten dabe eurek hainbat eta hainbat hedabidetan gaiak lantzeko dagon aukera edo aukera ezaz? Eta nolabait batzordeak diren edo ez gai hauek hitz egiteko momentua eta lekua eta gero gai hauek plenora ekarri behar diren ez?

Ze guretzat eta adierazi zitzaigun batzordeak informatzaileak direla bertan ez direla gaiak landu baizik eta informazio trasbase bat egon behar dela eta zentzu hortan guk uste dugu hori ez dela horrela gaiak landuta ekarri behar ditugula. Iruditzen zaigu gaiak eraman duen abiadak bazeukala nolabaiteko bestelako irakurketa bat iruditzen zaigu ere gastu guztiekin ez dela berdin jokutzen, gastu guztiei buruz ez da prentsara bideratzen horrelako azkartasunarekin edo igual bai eta igual udaleko kriterio berri bat gabonetako argiei buruz, balkoiko loreei buruz edo beste hainbat konturi buruz edo beste hainbat konturi buruz gastuak horrela adieraztea prentsan modu nabarmen baten agian hori ona da baina guk uste dugu benetan lanketa handi bat behar dauela gu prest gaz lanketa hori egiteko baina iruditzen jaku gaur aurkeztu dan mozia, barkatu adierazpena horrela lantzeko ez daukagula baldintzarik, orduan guk ez dugu parte hartuko botazioan.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

J.L MERINO (IRABAZI):

Nosotros también lamentamos que se produzcan este tipo de pintadas en el patrimonio y tal ¿no? Pero tampoco vamos a participar en esta votación. Es verdad que la libertad de expresión no esta garantizada para todos por igual, mientras unos tienen todos los medios de comunicación del régimen establecido otros colectivos no tienen otro medio que expresarse sino haciendo pintadas y tal. Reiteramos que rechazamos que se tenga más cuidado en donde se hace y tal ¿no? Pero es un debate que hay que analizarlo más, no te rías, me parece que ha venido con mucha prisa el PNV a plantearnos este tema ahora y tirándonos un papel encima de la mesa y diciendo aprobar esto que esto va a quedar muy bien en la prensa y Goiena mañana ¿no? Entonces hay que analizarlo un poquito más y no vamos a participar en este debate.

O.GARCIA (PSE-EE):

Arratsaldeon guztioi. Simplemente por aclarar me parece que estas muy mal informado, muy mal informado, cuando en la comisión a la que has hecho referencia de la cual yo soy presidente se pidieron explicaciones respecto a las luces de navidad. Era imposible dar un presupuesto porque no habíamos recogido ningún presupuesto todavía, y se dijo que en cuanto tuviésemos un presupuesto se llevaría a la comisión como así se hizo y se trataría el tema. Con lo cual te agradecería que cuando hables, hables con criterio y con cosas reales.

Respecto a la moción y entrando en materia y sin entrar en verborreas y ni en demagogias baratas, nosotros siempre hemos estado en contra de que se utilicen espacios públicos como en medio de reivindicación cuando ese espacio público se deteriora. Estamos a favor de que todo el mundo pueda expresar cualquier punto de vista cualquier ideología, cualquiera de verdad no tenemos ningún problema además nos parece extremadamente sano que la gente pueda expresarse con total libertad. Pero es cierto que cuando invades la libertad del prójimo ya lo dijo Voltaire en su tiempo “mi libertad empieza donde termina la tuya” si estas haciendo un uso equivoco de ese espacio público. Si estas haciendo que el conjunto de los arrasatearras paguen 10.000€ en este caso, podríamos echar la vista atrás y hacer mas números y el numero seria sonrojante, sonrojante. Nos llenamos la boca de ayudar al prójimo de servicios sociales, de AES, de RGIs, nos llenamos la boca con esas cosas pero luego cuando nos toca pagar entre todos la factura de unos pocos y de unos pocos que por cierto siempre son los mismos pues no se me choca bastante, me choca bastante.

Yo creo que deberíamos de defender lo público en general, lo público en general y cuando digo en general quiero decir prestar unos buenos servicios, no derrochar el dinero porque también se nos llena el dinero con no derrochar yo entiendo que pagar 10.000 € es derrochar dinero, entiendo que pagar 10.000 € es derrochar dinero quizá para algunos sea importante el dar a conocer su mensaje y para otros sea importante como en mi caso, entender ese mensaje pero no pagando 10.000 € entiendo que esta declaración es de mínimos, de mínimos, a mi me hubiese encantado hacer una declaración bastante más dura y creo que lo sabes Eneko bastante más dura, muchísimo más dura, infinitamente más dura porque venimos de donde intentamos seguir un camino paralelo pero tendente a coincidir en ciertas cosas y no encontramos más que chinias en el camino. Si hubiese menos chinias llegaríamos antes a ese destino que todos deseamos que es de ley decirlo y es de ley entenderlo. No por pintar un pueblo se va a conseguir nada más que el contribuyente pague esos 10.000 € con lo cual nosotros vamos a votar a favor de la



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

moción, dejando bien claro que esa moción no nos gusta porque nos parece de mínimos pero entendiendo que es una moción, una declaración institucional que por lo menos en esos mínimos deja claro que no viene a cuento tener que pagar entre todos esos 10.000 €.

P.ENCINAS (EH-BILDU):

Hau da nire estrenaldia Eneko ondo dago informatuta, ondo dago. Ni egon nintzelako komisio horretan eta gero eszenario toki desberdinagatik nik ikusi nituen gauza batzuk gai honetan adibidez, Enekok arrazoa eta egia esaten du adibidez, gai hori agertu zenean beste gastu herri diruarekin hitz egiten genuenean eta zen 20.000 euro gabonetako argitasunarekin eta zen txiripaz hori da txarrena bai hori eta puntu hori txiripaz agertu zen ez zegoen gai zerrendan.

Hori da txarrena nik adibidez, nik uste dut eta garbi daukat gobernuarena eta oposizioarena lan desberdina eta ardura desberdina daukagu zalantzarik gabe, hori garbi daukagu eta ez dago arazorik baina nik uste dut Arrasateren alde lan onaren alde gaudela ez gaude beste gauzarik buruz eta adibidez, hitz egiterakoan adibidea jartzea asko gustatzen zait eta horretarako adibidez dago hondakinen mahaiarekin pertsona desberdinak elkartu ginen ideia desberdinekin baina hala eta guztiz ere mahai gainean jarri genituen pentsatzen genuen eta letxes adostasun batera iritsi ginen zergatik bakoitzak gure aldetik jarri genuelako baina puntu honetan ez eta pena ematen zidan adibidez, nola agertu zen gaia eta gero beste jarrera bat eta salatzeko da harroputzez erantzun zidaten, nik hori ez dut onartzen, harroputzez ez dut onartzen gaizki iruditzen zaidalako eta guk adibidez nik ez dut hitz egiten ondare historikoari buruz bakoitzak daukagu gure balorea.

Adibidez, nirea da natura eta nola hondatzen dugun AHT, erraustegia etab... gure errekek, gure lantegian, gure lantegia bueno ez da gurea, lantegiak edo lantegitik edo botatzen dutena hori da ondarea ere bai. Eta nola dago nik ez dut hitz egiten ondare historikoari buruz, adibidez, beste adibide bezala agertu zen emakumeen munduko pintadak hori agertu ziren asteburu batean espaloietan, errepideetan eta hurrengo egunean kendu zituzten, hori da ondare historikoa? Orduan bueno nik uste dut nahikoa esaten dela azkenean gure lana baikorra izan behar dela besterik ez.

E.ABUIN (BALEIKE):

Gure alderdiaren iritzia adierazi nahi dut Arrasateko ondare historikoaren zaintza arrasatearren guztien erantzukizuna da guztion ondare den heinean. Ados gaude herriaren eraikin historiko eta kulturalak kontu handiz tratatu behar direla eta konpromisoarekin, hala era herritarrak adierazi daitezen esparru batzuk egokitu beharko litzateke honetarako eskubide ere baidute.

Kostuari buruz ere komentatzekoa iruditzen zaigu garbiketarena aipatzen denean beste kontu batzuen inolako ardura gabe jokatzeko, adibidez, 16.000 €tako gastua gabonetako argiak jartzeko. Eskerrik asko.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Norbaitek hitza nahi du? Bueno ba nik badaukat gauza bat esateko eta da ni OZMeko batzordean ez nintzela egon baina bai egon nintzen bozeramale batzordean lehengo astean izan genuen bozeramale



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

batzordean eta bozeramale batzordean tratatu genuen tema hau prentsara bideratu baino lehen eta bozeramale batzordean eman zitzaizuen erakutsi zitzaizuen txostena argazki guztiekin, garbitu ziren argazki guztiekin eta esan zitzaizuen han bertan oraindik kostearen zain geundela baina iruditzen zitzaigula bueno azkenean danon ahalegina egin beharko genukeela gure ondarea eta garbitasunaren alde apustu bat egiteko eta han bertan esan genuen baita ere bozeramale batzordean testua modifikatzeko inongo arazorik ez geneukagula eta modifikazioak sartzeko prest geundela denon adostasun bat lortzeko.

Bozeramale batzorde haretan egon zen Bilduko ordezkaria, PSE ez Oskar ez zen egon, Eva egon zen Baleiketik eta Juan Luis egon zen Irabazitik. Juan Luis Irabazitik zuk bozeramale batzorde haretan esan zenuen modifikazio bat egiten baldin bagenuen agian zu ados egongo zinatekeela eta horregatik hemen planteatzen den testu honetako hirugarren parrafoan modifikazio hori dago zuk hala eskatuta. EH bilduko ordezkariak Eneko Barberenak bozeramale batzordea haretan esan zigun beraiek oraindikan hausnarketa sakonago bat behar zutela eta seguraski azkeneko momentu arte bueno zain egongo zirela jakin barik zer bozkatuko zuten gaurko adierazpen instituzional honen gainean, beraz, ez dut onartu behar esatea gai honen inguruan informazioa ez zeneukatela eta gai hau ez denik tratatu prentsara bideratu baino lehen.

Orduan adierazpen instituzionala bozkatzera pasatuko gara.

Bertaratutakoak	19	
Aldeko botuak:	10	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (2)
Aurkako botuak:		
Abstentzioak:	9	BALEIKE (2) + EH BILDU (6) IRABAZI (1)

Bildu eta Irabazi udal taldeetako zinegotzietatik ez zuten bozkatu. Jokaera hau abstentziaren parekotasun jotzen da. (idazkariaren oharra)

Beraz, onartuta gelditzen da.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Ahaztu zait baita ere Piterri erantzun bat eman nahi nioke emakume mundu martxaren margotu ziren oinak eta ezabatu ziren oinen arabera, bai gustatuko litzaidake esatea arautegiak esaten duela baimena eskatu behar dela kalea margotzeko, adibidez, eduki genuen orain dela gutxi eskakizun bat arkoirisa margotzeko zebrabideetan bueno talde batek egin zigun eskakizuna eta orduan pentsatzen dugu ezin dugula desberdintasunik egin, hau da herritar batzuei denek egin behar dutela eskakizuna idatziz Biztanle Arreta zerbitzuan, horretarako dago biztanleen arreta zerbitzua.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

Orduan herritar batzuk edo talde batzuk egiten dute eskakizuna eta hombre ez zaigu iruditzen egokia jendea desberdin tratatzea azkenean berea zan biztanle arreta zerbitzuan eskakizuna egitea eta eskakizuna egiten denean ez dago inolako arazorik.

O.GARCIA (PSE-EE):

Argitzearren eta gauzak argi gera dazen. Piter zuk esan didazu berehala ezabatu zirela pausoak lurretik egixa da, nik eman nion prioridadea horri gertatzen zenagatik pintadengatik eta gertatzen zenagatik eta egixa da esan nauenean hori ezabatzea hurrengo egunean esan zidatela zergatik ziren pauso horiek margotuta lurrean. Berehala jarri ginan OZMetik harremanetan emakume mundu martxako eramaten zuten jendearekin eta esan genion nahi baldin bazuten berriro jartzea aukera zutela berriro jartzea. Ezjakintasunagatik ezabatu genituela ez beste ezergatik. Hori bakarrik.

P.ENCINAS (EH-BILDU):

Nik uste dut kentzeko pintada horiek kentzeko edo uzteko ez da behar bat-batean egin zergatik ez adibidez, lau hiru egun utzi eta gero ez da urgente ez da hainbesteko orduan zergatik ez utzi eta gero denboraz edo hori kendu.

7.- EMAKUMEEN MUNDU MARTXAREN INGURUKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.(2015SMOZ0018)

Udal Plenoak, aho batez, Emakumeen mundu martxaren inguruko adierazpen instituzionala onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Emakumeen Mundu Martxa 1995ean "Ogia eta larrosak" izeneko lehen martxa batekin hasi zen mugimendua da, ondoren Emakumeen Mundu Martxa (EMM) izena hartu zuena. Urteetan ekimen hau nazioarte mailan emakumeen arteko aliantzak sortzen aritu da lanean, eta helburu nagusi gisa sare feminista bat sortu eta munduan nagusi den matxismoa ikusaraztea izan du.

Hainbat ekimenen artean, bost urtetik behin nazioarte ekimen bat antolatzen da eta aurtengoa IV. Nazioarteko Ekintza izango da. Azken hau, Europa osoa zeharkatuko duen ibilbide batekin gauzatuko da, martxoaren 6an Kurdistanen hasi eta urriaren 17an Lisboan bukatuko dena. Hilabete hauetan zehar EMMko hainbat kide herrialde ezberdinetan barrena ibili dira, sarea sortu eta hainbat aldarrikapen zabaltzen. Martxa Euskal Herrira irailaren 28an helduko da Tafallara eta urriaren 4a bitarte herri ezberdinak zeharkatuko ditu Bilbon azken ekimen nazionalarekin a maitu arte.

Aurten lau lan-ildo adostu dira mundu mailako emakumeen sarearen eduki eta helburuak barnebiltzen dituztenak:



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

Sistemarteko Indarkeriak. Egunerokoan mendean hartu eta azpiratzen gaituzten eta gure gorputz eta lurraldeetan egikaritzen diren opresio sistema anitzak salatzen ditugu. Pobrezia, lurraldeen desjabetzeak, gure gorputzekiko eskubideak ukatzea, indarkeria zuzen, sinboliko eta kulturalak... batera jarduten dute emakume, trans, lesbiana, migrante, aniztasun funtzional, beltz edo indigenon gorputzen aurka. Indarkeria matxistaren konplexutasuna salatzen dugu eta aldi berea oinarria ikusarazten dugu, hau da, indarkeria matxistak beste hainbat indarkeriekin batera jarduten duela zeharlerro ezberdinen bidez.

Bizitzaren iraunkortasuna bizitza erdigunean jartzea da eta inola mozkin ekonomikoa edozerren gaineratik lortzea helburu duen merkatuen logikaren baitan. Jendarte bat ez da justua bizitza mantentzea helburu duten eta tradizionalki feminizatuak izan diren lan horiek ikusezin egiten dituen artean. Elikadura burujabetza, lurra txikitzeari, kutsatzeari, desjabetzeari eta lapurtzeari uztea, oinarritzkoa da.

Gorputzak eta sexualitateak. Gure gorputzak gure lurraldeak dira, eta beraz, haiekiko jabetza eta autonomia aldarrikatzen ditugu. Gure gorputzen eta sexualitateen jabe gara, gure generoa nahi bezala definitzen dugu eta nahi ditugun harremanak ditugu. Lesbianon, transen, aniztasun funtzionalon edota arrazializatutako gorputzak borroka feministaren zati garrantzitsua dira.

Sarean lan egitea eta aniztasuna kudeatzea. Lurralde ezberdinetatik gatozen emakumeak gara, bizipen, ibilbide, jakintza, gaitasun, identitate, borrokamodu eta aldarrikapen ezberdinekin, eta horiek defendatu, balioetsi eta errekonozitu nahi ditugu, hierarkiarik ezarri gabe. Aldarrikatzen dugu aniztasuna aberastasun bat dela, ondasun komun bat, gu batzeko balio duena, eta patriarkatuaren oinordetzarekin, emakumeak historikoki etsaitu eta banatu dituen tradizioarekin hausteko balio duena.

Udal honek Emakumeen Mundu Martxari babesa eman eta bere esku dauden baliabideekin berdintasunaren alde lan egiteko eta neurriak hartzeko konpromisoa hartzen du, helburu hauekin:

Indarkeriari dagokionez, ekintza protokoloak martxan jarri, sentsibilizazioan lan egin eta indarkeria matxistari dagokion formakuntzak burutzea. Halaber, EMMren protokoloari gure babesa adierazten diogu eta indarkeria sexistaren aurkako salaketa eta deialdiekin bat egiteko konpromisoa hartzen dugu.

Zaintzaileen bizitzak hobetzeko lan egitera eta zaintza lanak erazteko zerbitzu publikoak ahalbidetzera.

Aniztasun sexuala eta genero identitatea kontuan izanik lan egitea, eta lesbofobia, transfobia, arrazismoa eta kapazitismoaren aurkako planak burutzea.

Emakumeen jabetzaren sustatzea eta baita saretze eta emakume taldeen sorrerak bultzatzea.

Gure babesa erakusten duen adierazpen hau Emakumeen Mundu Martxako Europako Ordezkaritzara bidalia izango da.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Guk EH Bilduren izenean eskerrak ematea emakumeen mundu martxan lanean ibili dan lantaldeei euren lan boluntarioa eta ezinbestekoagatik bejoindezuela eta bueno behar izanez gero badakizue laguntzeko gazela eta dei egitea herritarrei antolatutako ekintzatan parte hartzeko nahiz eta gehienak egin diren eta geratzen den Lisboako hitzordua eta batez ere egunerokotasunean lan egiteko.

A.EZKURRA (EAJ-PNV):

EAJ-PNV taldetik baita eskerrak eman adierazpen instituzional hau aurkeztu dutenei baita EAJ-PNVren babesa izango dutela Enekok esaten dauen bezala be bai herritarrak animatu mundu martxan honetan parte hartu deigun geratzen diren ekintzetan. Eskerrak eman baita emakumeen txokotik etab. Arrasaten dauzkagun emakumeen inguruko lantalde ezberdinetatik bideratzen dan lanagatik eta gure babesa jasoko duela adierazpen honek.

J.L MERINO (IRABAZI):

Si bueno sumarme a lo que ha dicho tanto Bildu como PNV nosotros desde Irabazi los partidos que conformamos la coalición hemos participado activamente en esta en organizar y en estar en todo tipo de actos de esta marcha y contar con nosotros para lo que queráis.

8.- ALKATETZAK ONARTUTAKO EBAZPENEN BERRI HARTZEA

Udal plenoa Alkatezaren ebazpenen berri hartzen du.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Gai zerrendaz kanpo baina bueno bozeramaleei komentatu dizuedan moduan gustatuko litzaiguke beste adierazpen bat irakurtzea eta hau da igande goizeko iskanbilak gertatu ziren Arrasaten eta honen inguruan pasatuko naiz adierazpena irakurtzera.

Adierazpen honen bitartez joan den igande goizean urriaren 9an arrasateko azeri kaleko Jet Set diskotekaren parean udalerriko arrasateko udaltzainek jasandako erasoak gaitzetsi nahi ditugu. Udal gobernu taldearen eta gainorako udal ordezkarien izenean udaltzain erasotuei gure elkartasuna, gertutasuna eta adeitasuna adierazi nahi diegu eta laster senda daitezten espero dugu. Besterik barik galde- eskaerak.

9.- GALDE-ESKEAK.

E. BARBERENA (EH-BILDU):



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

Guk daukagu galdera bat.

Zela dago Arrasate pasealekuko kontua? Ireki zan urriaren 5ean berriz itxi zan arrisku puntu batekin eta gureko geunke jakitea ze epe aurreikusten dien eta zein izango dan kale horren obren amaierako egutegia eta bestetik bigarrena irailaren hasieran prentsan irakurtzen genuen nolabait ia ezaugarri batzuk definituta badazela, auto eta oinezkoen bizikidetzarako zona berezia izango dela, abiadura bat agertzen da eta nahiko geunke jakin honek ze prozedura eraman dauen ezaugarri honek onartzeko orduan. Ea ze partehartze maila egion dan, zenbat jende hartu dau parte, nola izan dan hau?

M.UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Bueno Arrasate pasealekuaren egoera zein dan erreil bat ireki zen guk esan genuen erreil bat ireki nahi genuela eta Hirigintza saileko teknikariek hala aztertuta bueno posible izan zenean erreil bat irekitzea erreil bat ireki zan normaltasun handiarekin baina udaltzaingo burua nire pertsonalki deitu zidan esateko berak ikusten zuela nahiz eta erreila irekita zegoen eta baldintza onak zeudela baina berak %100 segurtasuna bermatuta ez egotearen beldur puntu bat bazeukala. Orduan nik eskatu nion mesedez bere beldur horren gaineko txosten tekniko bat egitea eta txosten hori alkatetzara bideratzea alkatetzan tratatuko genuela txosten hori eta txosten horren arabera, erabakiko genukeela dagoenean mantendu erreila irekita edo itxi.

Orduan udaltzainetik iritsi zitzaigun txosten tekniko hori eskuragarri dago nahi duenak irakurri dezake txosten tekniko hori. Txostena aztertu genuen eta iruditu zitzaigun txosten horren arabera eta jakinda %100 segurtasunak bermatzeko zailtasunak daudela edozer pasa baino lehen komenigarriagoa zela erreila ixtea. Horregatik Alkatetzatik ebazpen bat egin genuen idatziz esanez, txosten tekniko hori aintzat hartuta erabakitzen zela erreila ixtea eta bai udaltzainen txosten teknikoa eta baita ere alkatetzaren ebazpena idatziz biak hirigintzako Arrasate pasealekuko gaineko txostenaren barruan daukazue. Guztiz eskuragarri, irakurgarri eta norbaitek esan nahi baldin badu edo galdetu nahi baldin badu edozein kontsulta egin nahi badu irekita dago. Zein da egoera hirigintzako departamentuak obra jarraitzen ari da eta daukagu gutxi gorabeherako epe bat baina bueno epea guztiz zitarra eduki arte ez dugu publikoki esan zein izango den epea baina edozein momentutan hirigintzako komisia hor daukazue eta hirigintzako komisiolan edozer dokumentazio eskatu dezakezue edozein galdera egin dezakezue.

Eta beste nola izango dan Arrasate pasealekua bai esan genuen publikoki irekita egongo dela turismoei irekita egongo dela kamioiei ez dela irekita egongo, hor egongo dela gehieneko abiadura bat izango dela 30 km/orduko Arrasate pasealekuak berak edukiko du horrelako plataforma bat bueno kotxe igoko da apurtxo bat pasatuko du guztia ez dakit nola deitu plataforma bat koxka bat ez? Pixkat bat igota egongo da Arrasate pasealeku guztia eta bueno honi buruz ere Hirigintzako komisiolan hitz egin dezakezue nahi den beste edo hausnarketa egin edo ez dakit edo hobekuntzak proposatu nahi duzuen. Partehartzea obra egin zenean partehartzea egin zen? Arrasate pasealekua itxi behar zen gaineko partehartzea egon zen bueno ba azkenean partehartzea egongo den edo ez. Hirigintzako komisiolan ere aztertu dezakezue eta partehartzea hirigintzakok omisio horretan adosten baldin bada partehartze prozesu bat irekitzea ba hor dago komisia eta zergati kez ireki daiteke partehartze prozesu bat bertan onartzen baldin bada.



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

E. BARBERENA (EH-BILDU):

Guk jabe gare gure akatsez eta gu jabe gare gauza batzuk agian ez genuela ondo azaldu edo ez genuela ondo planteatu baina era berean kanpaina elektorala oso gertu dagoenez gogoratzen gara ze gauza esan zien eta ze gauza leporatu jakun eta ikusten duguna da. Gauza bat esan eta gero beste gauza bat egin, zentzu hortan badugu intuizioa eta hemen agertzen da promesa elektoral bat betetzeko urri hasieran arrapaladan irekitzeko erabaki bat hartu zela eta bazegoela agian txosten diferenteak aurretik eskatzerik eta gero partehartzearena noski hemen eta agian Mondraberriko kazetariari galdetu beharko litzaioke, bueno klaro gauzak albistean agertzen dira gauzak definitu moduan nik behintzat horrela ulertzen dut noski hirigintza batzordean gaia landuko dugu, galdetuko dugu baina bueno nahi genuen nolabait ia pasada da denbora bat albistera pasa denetik baina bueno ia ke urriak 5eko irekiera et ahoi egon zan nahi genuen plenoa aprobetxatu galdera egiteko.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Oso ondo eskerri kasko. Beste galdera eskaerarik.

Publikotik ARRATE LANDA:

Ni Arrate Landa eta emakumeen mundu martxako plataforma kide moduan, eskertu nahi dizuet ordezkari talde politikoen ordezkarioi adierazpen instituzional honi bidea eman eta aho batez onartzeagatik. Adierazpen instituzionala hauxe da erakunde batek modu publiko baten adierazten duen konpromisoa baina konpromisoa egunerokotasunean egiten da, hitz potoloetatik haratago praktika txiki askotan gauzatzen, bultzatzen ditugun politika publikoetan eta sustatzen ditugun harreman moduetan gorpuzten da.

Emakumeen mundu martxari atxikimendua ematea sistema arteko indarkeria indarkeria gabeko bizitza baten alde egitea esan nahi askotariko zapalkuntza sistemak gainditzeko apustua egitea bizitzaren iraunkortasuna erdigunean ipintzearen alde lerratzea ere esan nahi du merkatuen logika saihestuz.

Emakumeen gorputz eta sexualitateen gaineko autonomia onartzea esan nahi du, gure arteko aniztasunak eta desberdintasunak onartzea eta bide horretatik elkarri lotu eta aliantzak ehuntzen laguntzeko babes ematea.

Gaurko adierazpen instituzional hau bide horretan mugarritxo bat izatea nahiko genuke eta aldarrikapen hauek erakundeetatik ez ezezik jendearte osoaren parte bilakatzea horregatik denok aske izan arte martxan jarraituko dugula aldarrikatzen jarraituko dugu.

Eta aparte beste zerbait komentatu neike? Honez aparte lotuta dator dana, guk egindako pintadak eta eskatu genuen baimena ze ni bitartean nengoen arkoirisa margotzeko baimena eskatu genuen taldeko kidea ere banintzen, orduan, zergatik ez genuen baimena eskatu urratsak ipintzeko bueno



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

besteendako baimenik ez genuelako jaso ez? Orduan pintada keta hau zuri zuzenduta doia Oskar zergatik zuk demagogia aipatu duzu eta nik aipatuko dizut Arrasaten bi toki bata gainera neretako esanguratsua delako Aldaiko gunea da, eta orduan Alai dago ipinita despedida zibilak egiteko gune moduan. Bueno ba han pintadak daude eta atzo lau urte gure lagun bat hil zela eta agurra egin geniola eta pintadak berdinak jarraitzen daue.

Beste gune bat Usaetxe plazan bizi naiz eta Usaetxe plazan garaje plazan bertan dago pintada bat eginda emakume bezala oso txarto pentsatzen jatena zergatik da maitasun erromantikoa adierazpen negargarrixa eta ez dakit zenbat urte daraman geldi pintada plaza erdixan eginda. Orduan gureko neuke nik pentsatzen dut garbitu behar direla adierazpen askatasuna alde nago, pentsatzen dut udalak eduki behar dauela diru bat herria garbitzeko baina noski zu kerrua bota diozu beti berdinari zergatik beste pintada kez dielako ukitu ere egiten garbitasunaren alde bagaude eskatu nizuke garbitasun danaren alde egotea. Zergatik bi gune horiek ni bizi nazena eta niretako esanguratsua dan gune bat.

O.GARCIA (PSE-EE):

Arrazoa guztia daukazu eta hemendik gure konpromezua OZMtik bihar bertan norbait bidaliko dut Usaetxe plazara eta Aldai pasealekura Aldaiko badakit non dan bidaliko dut jendea han dazen pintadak ikusteko eta gure konpromezua pintada horiek desagertuko direla. Denak berdinak direlako guretzako denak dira berdinak, beraz, barkatu horrela egoteagatik zuk ondo esan duzu orain dela lau urte baziela pintada horiek be bai eta gure konpromisoa Arrasate garbi bat edukitzeko eta pintada guztiak desagerrarazteko. Mila esker

M.UBARRETXENA (Lehendakaria)::

Eskerrik asko Oskar nik bai gureko neuke esplikazio bat ematea ortzadarraren zebrabideak ortzadarraren koloreekin margotzearen eskakizunaren inguruan eta zergatik eman zen ezezkoa. Bueno guri udaltzainen txosten bat etorri zitzaigun baimen honen arabera eta ez dakit pentsatzen det zuei ere txostena emango zizuela ez baldin bazizuen eman ba ez dakit galdetuko de tea zergati kez den horrela izan baina udaltzainen txosten bat etorri zitzaigun esaten zebrabidea margotzea legez debekatuta dagoela eta alternatiba bat eskaini zitzaizuela et aizan zelaz ona peatonal batean zebrabide bat margotzea. Hori da nik daukadan informazioa.

Publikotik ARRATE LANDA:

Komentau duzuna heldu zan baina oso berandu askoz be beranduagoa uztailak bukaera aldera edo abuztuan berandu heldu zan.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):



Esp.-kodea: 2015SAPL0012

Geldituko naiz nahi baldin baduzue esplikazio gehiago ze gogoratzen naiz egia da egin zenutenean eskakizuna oso denbora gutxi zegoela egin zenuenetik margotzeko momentura baina hala ere eskatuko dut informea, begiratuko de tea zergati kez zitzaizuen lehenago iritsi eta baldin et aizan bada gure aldetik oker bat egin dela zuei erantzun hori hain berandu ematen. Hemendik aurrera baliabideak jarriko ditugu berriro gerta ez dadin.

Beste galdera erregurik ez baldin badago orduan plenoari amaiera emango diogu.

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 19:30tan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2015eko urriaren 13a

IDAZKARIA

LEHENDAKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

María Ubarretxena Cid